



**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**

Euskara biziberritzeko
ikergunea

2020ko otsaila

TOKIAN TOKIKO HIZKUNTZA-AKTIBAZIOA

Herritarrak eta euskara: aktibaziorako prozesua eta gakoak

Ikerketaren emaitzak (2016-2019)



Aurkibidea

1	SARRERA	2
2	KOKAPENA ETA IKERKETAREN MARKOA.....	3
2.1	Aktibazioaz.....	3
2.2	Hizkuntza-aktibazioaren definizio-proposamena	5
2.3	Tokian tokiko lankidetzeta, euskararen inguruan aktibazioa lortzeko.....	6
2.4	Hizkuntza-aktibazioa Gipuzkoan; laborategia	8
3	IKERKETA-GALDERAK ETA HELBURUAK	11
4	IKERKETAN ERABILITAKO METODOLOGIA.....	12
4.1	LEHEN FASEA: Esperientzien azterketa	12
4.2	BIGARREN FASEA: Gakoak lantzeko esku-hartzeak.....	14
4.2.1	Arrasate.....	15
4.2.2	Tolosaldea.....	17
4.2.3	Saio orokorrak	18
4.3	HIRUGARREN FASEA: Tokian tokiko Euskaraldiaren aktibazio-gakoak aztertzen	19
5	ANTOLAKETA.....	22
6	GARAPENA ETA EMAITZAK	23
6.1	Hizkuntza-aktibazioa: prozesu proposamena	23
6.2	Hizkuntza-aktibaziorako gakoak	35
7	AZKEN HAUSNARKETAK.....	44
8	EMAITZEN HEDAPENA	45
9	BIBLIOGRAFIA.....	47
10	ERANSKINAK	48
10.1	Diseinu-txostena	48
10.2	Gakoen txostena	49
10.3	Arrasateko esku-hartzearen txostena.....	50
10.4	Tolosaldeko esku-hartzearen txostena	51
10.5	AKEBAI (Eibar) esperientziaren txostena	52
10.6	“Euskaraldiko aktibazio-gakoak” txostena.....	53

1 SARRERA

Ikerketa-proiektu honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritzaren eskariari erantzun dio. Izan ere, Zuzendaritza horrek Soziolinguistika Klusterrari eskatu zion 2015.eko urte amaieran ikerketa-proiektua abiatzea euskararen erabilera sustatzeko aktibazio-prozesuei buruz.

Ikergaia bereziki interesgarria da, izan ere, azken hamarkadetan ahalegin ugari egin ditu euskalgintzak eta administrazio publikoak, bakoitza bere aldetik joanda edo elkarlanean, herrietan euskararen erabilera sustatzeko; baina kasu askotan ez dira lortu desiratutako emaitzak. Ezinbestekotzat jo da, beraz, orain arte egindakoetatik ikasi eta aurrerantzean erabiltzeko lanerako modu berriak eraikitzea, euskararen aldeko aktibazioa lortzeko tokian tokiko herritarren artean.

Proiektuaren hasieran, euskalgintzaren apalaldiaz hitz egiten genuen. Proiektuak iraun duen bitartean ikusi dugu, ordea, Euskaraldia sortzen, garatzen eta gauzatzen. Horrek eragina izan du herrietako euskararen inguruko dinamiketan, eta baliteke hasieran aipatzen genuen apalaldi hura azkartzeko ekimen garrantzitsua izatea Euskaraldia.

Testuinguru horretan, "Tokian tokiko hizkuntza-aktibazioa" ikerketak bi emaitza nagusi plazaratu ditu: alde batetik, tokian tokiko herritarrak euskararen gainean aktibatzeke, zaindu beharreko gakoak zeintzuk diren, eta, beste alde batetik, aktibazio horretarako balizko prozesua zein izan litekeen.

Hau da, herritarren aktibazioa bultzatuko duen prozesua izan dugu aztergai. Horretarako, lehendabizi, tokian tokiko hainbat esperientzia aztertu dugu, eta jarraian, identifikatutako gako horiek berariaz lantzeko saioak eginez esku hartu dugu Gipuzkoako bi gunetan. Bertatik jasotako informazioa baliatuz eta Euskaraldiko beste hainbat esperientziatako informazioarekin osatuz eskuratu dira ikerketaren emaitzak.

Emaitza horien dibulgaziorako, esku orria eta laburpen-txostena osatu dira, eta txosten honek, berriz, proiektuan egindako guztiak batera izatea du xede. Hots, gaian sakondu nahi duten ikerlarientzako argibideak jaso dira hemen.

Ikerketan partaide izan dira Soziolinguistika Klusterreko bazkide diren Donostiako Udala (Edurne Otamendi), Elhuyar (Helene Armentia), Emun (Amaia Balda eta Ainhoa Lasa) eta Euskaltzaleen Topagunea (Mikel Ozaita), Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera (Izaro Ugalde eta Joxean Amundarain), EHUko Parte Hartuz ikerketa taldeko Zesar Martínezen aholkularitzarekin eta Soziolinguistika Klusterraren (Imanol Larrea eta Maialen Iñarra) koordinazioarekin.

Garapen taldeko partaide horiez gain, proiektu honetan ezinbestekoa izan da tokian tokiko eragileen parte-hartzea. Hala, lehen fasean parte hartu dute Otxandioko Herri-Ola, Lasarte-Oriako Ttakun, Donostiako Egian Euskaraz, Gernikako Astra eta Emakumeen Mundu Martxa ekimenetako hainbat kidek. Bigarren fasean, berriz, parte hartu dute Arrasateko Geike, Tolosaldeko Galtzaundi eta Eibarko Akebai ekimenetako eragileek. Hirugarren fasean, azkenik, Arrasateko, Donostiako, Errenteriako, Hondarribiko eta Ikaztegiatoko Euskaraldiko batzordeak izan ditugu bidelagun. Guztiei, gure esker ona adierazi nahi diegu, proiektu hau eurei esker garatu baita.

2 KOKAPENA ETA IKERKETAREN MARKOA

2.1 AKTIBAZIOAZ

Aktibazio hitzak mugimenduarekin, prozesu bat martxan jartzearekin du lotura. Oro har, egoeraren intuizioak edota irakurketak partekatzen ditu talde batek, eta ekintzarako antolatzen da, ekimena abiatzen du, alegia. Ekimen horrek herritarren aktibazioa bultzatu eta erraztu nahi izaten du. Gainera, bestelako baloreen eta praktiken gaineko atxikimendu erreala lortu nahi izaten du, ordura arteko inertziak gainditzeko eta bestelako balore eta praktika horiek nagusitzeko.

Hau da, errealitatean eragiteko asmoz abiatzen den antolakuntza-prozesua da aktibazioa, elkarlan irekia eta malgua bilatzen duena (norberaren identitate aktibista eraldatuko eta aberastuko duena), ekintza multzo bati ekiteko.

Beraz, aktibazioa oso gertu dago eraldaketa sozialaren ikuspegitik. *Kooperatibagintza eta eraldaketa soziala*¹ren 2016. urteko topaketan eraldaketa soziala ezaugarri hauen arabera definitu zen:

- Autoeraketa eta autogestioa du oinarri.
- Errealitatea aldatzea bilatzen du: justizia soziala hobetzeko, aukera berdintasuna bermatzeko, tokiko garapena bultzatzeko, enplegua sortzeko, behar sozialak asetzeko, bizi kalitatea hobetzeko, hizkuntza eta kultura bizindartzeko, e.a.
- Kolektiboa da eta komunitatea du oinarri (komunitatea adiera zabalean: herri edo lurralde mailakoa, talde jakin batzuen...).
- Eraldaketa komunitarioa ez da lineala, olatuen itxura du, fase ezberdinez osatua dago.
- Ekintzek ekosistema ikuspegia izan behar dute oinarri, baloreetan sustraituak eta mugimendu izaera dute. Proiektu ikuspegia ez da baliagarri, mugimenduan dagoen prozesua da eraldaketa: ikasketa kolektiboa sustatzen du, balioetan oinarritutako ekintza kolektiboa.
- Prozesu partekatuak dira eta prozesua bera da eraldatzailea. Proiektua partekatua ez bada, ez da eraldatzailea. Gizarte proiektzio handiagoa lortzen da prozesu partekatua denean.
- Komunitate edo erakunde mailan garrantzitsua da pertsonen sumatzea gauzak aldatzeko "baimen soziala" dagoela, aldaketa onuragarri ikusten den ekosistemak sortzea. Ekosistema edo kultura hori ez dagoen tokietan zailagoa da eraldaketarako jarrera egotea.

Era berean, eraldaketa soziala edota aktibazioa prozesu luzea da (indarrean dauden asimetriak eta aukera-ezberdintasunek sustrai historiko luzeak baitituzte gehienetan), eta ez da lineala, izan ere, erresistentziak, kontraesanak eta gorabeherak ditu. Horregatik, olatuekin irudika daiteke aktibazio-prozesua (batzuetan goraldiak izango ditu, eta besteetan apalaldiak). Beraz, pazientzia

¹ <https://labur.eus/vws3a>

historikoa beharrezko egiten da, eta garrantzitsua da, unean uneko irakurketak egiteaz gain, historiaren denbora luzeko prozesu-ikuspegia edukitzea (koiuntura batzuetan eustea eta eraldaketaren lekukoa goian mantentzea ez da gutxi).

Hain zuzen, aktibazioaz honako definizio hau jasotzen du Wikipediak²:

“Aktibazio energia erreakzio kimiko bat gerta dadin behar den hasierako energia da. (...) Erreakzio kimiko bat gertatzeko hasierako molekulak “aktibatu” behar dira. Aktibazio energiak bi efektu ditu:

- Erreakzionatuko duten molekulei beren lotura kimikoak apurtzen dizkie.

- Molekulen elektroiek sortzen dituzten aldarapen-indarrak ezabatzen dituzte. Modu horretan erreakzionatuko dituzten molekulak elkartu ahal dira eta talka egin dezakete.

Bi efektu horien bidez molekulen arteko elkarrekintza burutzen da, eta erreakzionatzerakoan molekula berri bat sortuko dute”.

Wikipedia, 2020-02-03an kontsultatua

Energia hitza grezieratik dator, eta hainbat adiera ditu: “aktibitatea”, “jarduera”, “ekintzarako indarra edo lanerako indarra”, betiere “egin, eraiki, eraldatu edo mugimenduan jarri” zentzua dutenak. Fisikan, bestalde, lan bat egiteko gaitasuna da energia.

Ildo horretatik, askotan, elkartzeko edo batze hutsetara mugatzen gara herritarrok, eta uste dugu elkartzeko hutsarekin mugimendua eragingo dugula eta txinparta sortuko dela. Izan ere, zenbaitetan txinparta edo lehertzea bat-batekoa izaten da, ekintza edo erreakzio jakin batek eragindakoa. Erantzuna, beraz, ez da planifikatua izaten, unean unekoa baizik.

Beste zenbaitetan, ordea, elkarlan eraginkor hori ez da automatikoki gertatzen ondorengoengatik, adibidez:

- Energia-dosi txikia dago arrazoi ezberdinak direla medio.
- Pertsonen edo erakundearen arteko igurtzia ez da orientazio edo modu egokian gertatzen.
- Pertsonak elkartu egiten dira, baina sarritan elkarrengandik urrun daude, ideien fluxua eta elkartrukea ez da eraikitzailea.

Beraz, garrantzitsua gertatzen da aktibazioa planifikatua, graduala eta prozesu baten ondorioa izatea; prozesua den neurrian, esku hartuz hobetu eta emankorrago bihurtu daitekeelako.

Izan ere, aktibazioaz dihardugunean joera dugu irudikatzeko ekintza masibo bat, ospakizuna edo sumindura adierazteko ekintza bat, ohiko bizimodutik kanpo ateratzera behartzen gaituen ekintza bat. Baina hori icebergaren tontorra baino ez

² https://eu.wikipedia.org/wiki/Aktibazio_energia

da, ikusgarri zaiguna, agerikoa dena. Hori gertatzeko, ordea, alde aurretik, gakoak eta prozesua landu eta zaindu behar dira.

2.2 HIZKUNTZA-AKTIBAZIOAREN DEFINIZIO-PROPOSAMENA

Gure kasuan, herritarrak hizkuntzaren gaiarekin aktiba daitezen zaigu interesgarri. Hala, zer da hizkuntza-aktibazioa? Nola definitu dugu? Bada, hizkuntza errealitatean eragiteko asmoz abiatzen den antolakuntza-prozesua, elkarlan irekia eta malgua bilatzen duena, ekintza multzo bati ekiteko.

Soziolinguistikan, hainbatetan, prozesu indibidual moduan ulertu izan da aktibazioa, hizkuntza-ohiturak aldatzeko prozesu moduan, alegia, eta, horretarako, tailer ugari sortu eta liburuak argitaratu dira. Ikerketa-lan honetan, hizkuntza-aktibazioa prozesu indibidual gisa ulertzen dugu, baina ez gara mugatzen dimentsio pertsonalera, hau da, hizkuntza-ohiturak aldatu eta euskaraz jarduteko norberak egiten duen ibilbidera. Hizkuntza-aktibazioa prozesu kolektibotzat ere hartzen dugu, eta talde batek, balio batzuk oinarri, praktika batzuk aurrera eramateko bategitean sortzen den prozesua izan dugu ikergai nagusi.

Bi dimentsioak landu behar dira hizkuntza-aktibazioa lortzeko. Dimentsio indibiduala landuta hel daiteke prozesu kolektibo edo komunitarioa eraikitzen, eta, alderantziz. Ekintzak garatu ahala, prozesu komunitario bateko partaideak dimentsio pertsonala garatuko du, eta, ondorioz, hainbat balio eta jokaera bere egingo ditu.

Orain arte, euskararen aldeko ekimenetan eta erakundeetan parte hartzeko hainbat modu egon dira. Zerrenda hau gerturapen hutsa da: militantea, boluntarioa, liberatua/teknikaria, bazkideak, arduradunak. Hizkuntza-aktibistek, gainera, ezaugarri hauek izan ditzakete: gogo propioa, burujabea dena, kontzeptu zabalagoa, erakundeen baitan edo kanpotik baina ekintzen bitartez aldatetako bultzatuko ditu, ekintzailea. Beraz, hizkuntza-aktibistez ari garenean, argi geratu behar litzateke, eragiletzaz ari garela, Sarasuak aipaturiko "euskaletze" (Sarasua, 2013). Pertsona hauek subjektu aktibo izango dira, kasu honetan, tokian tokiko euskararen erabilera bultzatzeko subjektu aktibo, alegia.

Benetan pausu esanguratsuak emango badira, ordea, hizkuntza-aktibistak nolabait eratuta egon behar dira, norbanako gisa eta bere ingurune hurbilean eman ditzakeen ekimenak gutxietsi gabe. Tokian toki, honako eraketa-modu hauek topa litezke: Euskararen Aholku Batzordeak, Euskara Batzordeak, Kontseilu Sektorialak, Euskara Elkartek, Euskara taldeak, sektoreen baitako elkarteak, ikastetxeak, Helduen Euskalduntzea eta Alfabetatzeko erakundeak, Euskal Herrian Euskaraz, Euskalgintzaren bilguneak..

Hala eta guztiz ere, ikerketa abiatu zenean, hainbat adituk eta arituk azpimarratzen duten euskalgintza soziala eta instituzionala apalaldian murgildua zegoela. Aitzitik, beste alor batzuetan, herritarren aktibazioaren inguruko esperientzia interesgarriak behatzen ziren; adibidez kulturaren arloan edo genero-berdintasunaren inguruan. Beraz, hizkuntza-aktibazioarako, berrikuntza eta lankidetzan aritzeko moduak moldatzeko une egokia izan zitekeelakoan geunden.

Ondorioz, ikerketa honetan, portaera linguistikoetan eragin nahi duen ekimena, mugimendua edo elkarlan prozesua izan dugu aztergai; herritarren aktibazioa

sustatuko duen prozesuaz aritu gara, alegia. Horregatik, tokian tokiko herritarrek aktibatzeke pentsatuak daude txosten honetan jasotzen diren edukiak, baina bestelako gaietarako, guneetarako edota lurraldeetarako ere balio dezake.

Bereziki egin nahi da azpimarra elkarlanean, sarreran aipatu bezala, ezinbestekotzat jo baita aurrerantzean lan egiteko modu berriak eraikitzea, eta, modu berri horietan, eragile guztien arteko lankidetzak eta adostasuna funtsezkoak izango direlakoan gaude: administrazio publikoak, euskalgintzak, beste eremuetako gizarte-eragileek eta herritarrek tokian toki elkarrekin jarduteko moduak aztertu eta probatu behar dira euskararen erabilera benetako jauzia eman ahal izateko. Gizartea aldatzen doa, eta hizkuntza-aktibazioa lortzeko egindako lana ere horretara egokitu behar da.

2.3 TOKIAN TOKIKO LANKIDETZA, EUSKARAREN INGURUAN AKTIBAZIOA LORTZEKO

“Hizkuntza ere bi hankaren gainean mugitzen den zerbait dela; alde batetik erakundeak behar dituela eta herri mugimendua bestetik”

Txillardeggi (Agirre, 1996)

Lankidetzaz ari garenean, lankidetzak zein agentek garatuko duten aztertu behar da. Tokiko hizkuntza-aktibazioaz ari garenean, ezinbestekoa da euskalgintza instituzionala eta soziala kontuan hartzea.

“Euskararen komunitatearen garabide errealari dagokionean, halako eredu misto bateko funtzio banaketa daukagu orain. Batetik gizarte-erakundeak hizkuntza komunitatearen hainbat zutaberi eusten, eta bestetik erakunde publiko-administratiboak beste zutabe batzuei eusten lurralde batzuetan eta kasurik onenetan, baliabide publikoak bideratzen”

(Sarasua, 2013)

Hala, tokian toki, bi euskalgintzen arteko funtzio banaketa dago:

“Osagarritasunean sinesten dugu gure mugimenduan, herritar antolatu gisa dena ez dago gure esku, ezta erakundeen esku ere. Gizarte mugimendu gisa egiteko propioak ditugu, geuk eginda sinesgarritasun eta onarpen maila izango dituztenak. Gure arduraren parte geuk betetzean, bizi nahia eta duintasuna erakusten ditugu. Baina ardura partekatua da eta erakundeei ere badagozkie egiteko batzuk, haiek bete behar dituztenak. Hona hemen horren inguruan eskematxo bat, gaur egun onarpen maila handia duena gizarte mugimenduetan:

- *Gizarte Mugimenduei: Herritarrek aktibatzea, antolatzea, ilusionatzea, ahalduntzea, formatzea, bizi nahia erakustea. Gizartean oro har eragitea. Erakundeen diskurtsoak auzitan jartzea, erakundeengan eragitea, elkarlanerako espazioak bilatzea, euskararen aldeko hizkuntza politika eraginkorra lortzeko eragitea...*

• *Erakundeei: Politikak erabakitzea, legeak onartuz, arauak zehaztuz, baliabideak eskainiz. Gizarte mugimenduen egitekoak onartuz eta babestuz. Gizartean eta botere ekonomikoan eragitea,...*

(Zapata, 2015)

Funtzio banaketa horretatik elkarlanean aritzera jauzi egitea berrikuntzat har liteke, baita premia kotzat ere, Sorguneak-ek egindako kulturaren ikerketan aipatzen den gisara:

"(...) egoera larriak eskatzen du (kulturgintzaz ari da) bi agente horien arteko harreman eta lankidetzaren osasuntsua lantzea: tokian tokiko helburuak markatzea, nora iritsi nahi dugun adostea, gutxienekoak zeintzuk diren eta horien erdiesteko politikak eta ekimenak lehenestea, bai emaitzetan (politika ausart, beregain eta konplexurik gabeak abian jartzea) eta baita prozesuetan (gizarte zibil autoeratuarekin batera bisio eta gune benetan adostu bat inplementatzeko orduan). Topaguneak eratu eta etorkizunari begirako erronkak diseinatzeko ordua da."

(SORguneak ikertegia, 2008)

Lankidetzaren hori garatuz herritarrak hizkuntzaren gaian aktiba daitezkeelakoan gaude. Izan ere,

"(...) botereak (...) hizkuntza beharizanen zerbitzura egon behar du, momentu eta leku bakoitzean hizkuntzaren normalkuntzak behar dituen bitartekoak eskueran jarriz eta dagokion ardura politikoa hezurmamituz, kontzientzia, konpetentzia eta koherentzia eredu bilakatuz"

(Arruti & Muniozguren, 1993)

Tokian toki, euskalgintza sozio instituzionalaren arteko lankidetzaren harremanak topa litezke; adibidez,

"(...)Udal Euskara Zerbitzua izan daiteke, euskara zerbitzu horretatik soilik normalizatuko ez dela jabetzeko lekurik aproposena. Hainbat Euskara Zerbitzutan zubi-lan oso interesgarria garatzen ari da. Lehenik zinegotzi eta alkateen hizkuntza normalizazioarekiko heziketa-lana garatuz, bigarrenik udalerrietan euskararen aldeko dinamika sozial berriak eratuz edo eratzen lagunduz eta hirugarrenik, Udalen eta aipatu elkarten osagarritasuna eta elkarlana ahalbidetuz"

(Amonarriz & Arruti, 1993)

Printzipioz, "zenbat eta esparru geografiko mugatuagoan jardun, orduan eta elkarlana errealitate nabarmenagoa da" (Arruti & Muniozguren, 1993).

2.4 HIZKUNTZA-AKTIBAZIOA GIPUZKOAN; LABORATEGIA

Euskara gutxiagoturiko hizkuntza da bere lurraldean. Oraindik ere, pausu garrantzitsuak eman beharko dira normalizazio bidean. Hizkuntza berreskuratzeko prozesu bete-betean murgilduta gaude. Azken 50 urteotan, hizkuntza-aktibazioari esker, hizkuntza komunitatea autoeratzten joan den neurrian bide esanguratsu bat egin da:

“Azken 50 urteotan euskararen aro modernoari azpiegitura eman dioten erakundeen artean, gizarte antolatuaren esparrukoek pisu berezia dute. Esan liteke gizarte antolatua izan dela lehen protagonista hizkuntzaren bide honetan, erakunde publiko batzuekin batera”

(Sarasua, 2013)

Frankismo bete betean, euskara debekatuta zegoen garaian abiatu zen berreskuratze-prozesua, ekimen sozialari esker. Garai hartan, ikastolen mugimendua, helduen alfabetatze eta euskalduntzea, euskal kantagintza, bertsolaritzaren zabalpena, aldizkariak, argitaletxeak... sortu izana, euskal hiztun komunitatearen bizindarraren erakusgarri dira. Frankismo ondorengo urteotan, orduan abiatutako bideari beste erritmo eta sakontasun bat eman zaio, ofizialtasunari (ez lurralde guztietan), euskararen aldeko herri-ekimen eta erakundeei eta erakunde publikoen (ez guztiek neurri berean) ahaleginari esker. Egoera soziolinguistikoa ezberdinak izateaz gain, aplikatu diren politikak ere oso ezberdinak izan direnez, lurralde batzuetan berreskurapena mantsoagoa izatea edota etetea ekarri du (Nafarroan edo Ipar Euskal Herrian, kasu). Beste lurralde batzuetan egoera hobean daude, Gipuzkoa kasu.

Testuinguru honetan, 1980ko eta 90eko hamarkadetan sortu ziren tokiko euskara elkarteek, herriz herri beste hauspo bat eman zioten berreskuratze prozesuari; baita kualitatiboki ere, hiztun komunitatea erdigunean jarrita eta lehia alderdikoietatik kanpo kokatuta. Hainbat baliabide sortu zituzten elkarlanean: tokiko hedabideak, aisialdia, sentsibilizazioa, kultur eskaintza, mintzapraktika eta abar. Aro honetan edo lehentxeago sortuko dira, Euskal Herrian Euskaraz, EITB, EHU, Euskaldunon Egunkaria, Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua, Euskaltzaleen Topagunea, herrietako euskara batzordeak eta udaletako teknikariak, foru aldundietan eta autonomia erkidegoetako erakundeetako euskara sustatzeko atalak eta abar berreskuratze prozesuan ezinbestekoak. Batez ere 1990eko hamarkadan eta XXI. mendeko lehen hamarkadan garapen handia izan dute euskararen erabilera sustatzeko prozesu planifikatuak eta euskara plan asko garatu dira enpresetan, erakunde publikoetan eta herrietan. Horren adierazgarri da euskararen inguruan hazkunde nabarmena izan duten aholkularitzak, esate baterako Ahize, Artez, Elhuyar edo Emun. Tokian tokiko euskararen erabilera sustatzeko ekimen antolatu garrantzitsuak jarri ziren abian garai hartan. Alde batetik Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak Bai Euskarari kanpainaren baitan abian jarri zituen herrietako euskararen plan estrategikoak. Beste alde batetik, Eusko Jaurlaritzak Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) sortu zuen, gerora Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) bihurtu dena. Sortu ziren garaiko konfrontazio politikoa bi ekimen horietan ere begi-bistakoa izan zen, eta horrek murriztu egin zituen lankidetzarako aukerak zenbait gunetan. Dena den, herri

askotan garatu ziren euskararen inguruko planak, eta esperientzia ugari dago horren inguruan.

Gaur egun, aurrerapausoak aurrerapauso, sintoma kezkarri batzuk ere badira euskararen egoeraren inguruan: haur eta gazte gehienak euskaldunak badira ere, gizarteko sozializazio esparru asko ez direnez euskaldundu, euskararen erabilera ez da ezagutzaren tamaina berean igo, bat aipatzearen. Gainera, neke eta noraez sentsazioa nabarmena da euskalgintzan. Bidegurutze baten aurrean egon gintezke:

“Fase aldaketa batean gaude; eta ez bakarrik, zorionez, fase soziopolitiko berria zabaldu delako. Bidegurutze batera heldu garela esan daiteke. Egin kontu! ETBrekin, batuarekin, ofizialtasunarekin edo D ereduarekin jaio zen belaunaldia, oraintxe ari da lan mundura iristen eta haurrak izaten. Baina norantz joko du gero eta euskaldunagoa den belaunaldi berri honek? Euskara izango du gero eta gehiago hizkuntza nagusi? Edo euskaraz jakin arren erdaraz egiten jarraituko du, besteak beste, gure belaunaldiak eskaintzen dizkion lanerako eta sozializatorako eremu nagusiak erdarazkoak direlako? Hurrengo hamarkadetan, Europako hizkuntza normalizatuen bidean jar gaitzke edo Irlandako sinbolismoaren norabidea hartu”

(Amonarriz, 2015)

Euskalgintzako eragile gehienek, halere, jorratu behar den bidea partekatzen dute, eta ez da gutxi:

“Diskurtso eta jokamolde zaharrak aldatzeko ordua iritsi dela dirudi. Pauso kualitatiboak emateko baldintzak badaudela sinesten dute askok. Ezagutza zabaltzen jarraitzearekin batera, erabileran jarri behar dira indarrak. Horretarako diskurtso erakargarri bat eta borondate politikoa behar dira. Borondatea jendartearen esparru guztietan”

(LARRUN gehigarria, 2015)

“Berrikasi eta berrikusi” txostenak ere (Euskaltzaleen Topagunea, 2015), etorkizunari begira landu beharreko hainbat estrategia mahai gaineratzen dituzte, hala nola; epe luzeko plangintza eta hizkuntza politika, lege babesa, baliabideak eta erreferentziak, egitura eta autoritatea, diskurtso multzo koherentea eta arnagune politikoa alderdien aldetik. Bi nabarmentzen dituzte, dena den, hiztun komunitate emantzipatua eta hiztun komunitatearen motibazioa eta bizindarra. Azken bi hauetan kokatu genitzake, hizkuntza-aktibistak hizkuntza-aktibaziorako eragile gisa, hiztun komunitateko eragile, Sarasuak (2013) “euskalgile” izendatu dituenak. Oraindik bide asko dago egiteko, eta bide horretan bide urratzaileak izango diren hizkuntza-aktibistak elikatzen eta birsortzen joan beharko da, hainbatek aipatzen duten apalaldia gaingituko badugu. José María Sanchez Carrión, “Txepetxek” (1987) jaso zuen gisara, “espazio sinbolikoaren nuklearizazioa” ezinbestekoa da.

Horiek horrela, Gipuzkoa hizkuntza-aktibaziorako laborategi ezin hobea izan daiteke: lurralde euskaldunena da, aldekotasun soziopolitiko handiena du, euskararen aldeko erakundetze sozio-instituzional (Euskalgintza) indartsua du, eta ondorioz, hizkuntzaren funtzio batzuk berreskuratzeko bidea egin du.

Gipuzkoa, gainera, demografikoki lurralde nahiko orekatua da, hiriburuaz gain, eskualde buru eta eskualde izaera duten lurraldeak badira. 10.000 biztanletik gorako herri asko daude (23) eta hauetan biztanleriaren % 82 bizi da. Horietako herri batzuk eta gainerako gehientsuenek euskararen arnagune fisikoa osatzen dute, hau da, euskara nahiko goxo bizi den eremua, nahiz eta azken urteotan atzera pausuak ere eman dituzten.

Gipuzkoako euskararen ezagutza orokorrari dagokionez, azken 15 urteotan % 3ko igoera soilik izan du (Soziolinguistika Klusterra, 2014).

Dena den, etorkizuna euskaraz dator. Hala erakusten dute euskararen gaitasunari buruzko datuek (Soziolinguistika Klusterra, 2014), gazteen artean oso handia baita euskararen ezagutza, nahiz eta etxeko euskararen erabilera ez aurrera eta ez atzera dagoen.

Kaleko erabilerari, berriz, 1989-2011 urte bitartean, goranzko joera nabarmendu zaio, baina "azken bosturtekoan (2011-2016) atzera egin du erabilerak, 1,5 puntu" (Soziolinguistika Klusterra, 2017) eta % 31,1ean kokatu da.

Bide sakona dago, beraz, oraindik egiteko. Bide horretan, Gipuzkoari eta gipuzkoarrei, euskararen berreskurapenean bide urratzaile rola dagokie:

"Gipuzkoa dugu euskararen lurralderik sendoena. Gipuzkoarron erantzukizuna da, hizkuntza normalizazioari dagokionez, Euskal Herri osoarentzat adibide aurreratua eta motor izatea, gure arnaguneak zainduz eta euskararen irradiazio gune bihurtuz"

(Amonarriz, 2015)

Gipuzkoan, bidea egiten asmatzen bada, beste euskal lurraldeetarako baliagarri izan daiteke egingo den bidea, ahaztu gabe, askotan, alboetatik datozela irakaspen handienak.

3 IKERKETA-GALDERAK ETA HELBURUAK

Proiektu honen helburu nagusia hauexek izan da: herri eta eskualdeetan euskararen inguruko aktibazioa eragiteko gakoak identifikatzea eta aktibaziorako prozesua proposatzea, azken xede gisa euskararen erabilera gora egin dezala hartuta.

Bi ikerketa-galdera nagusi hauei erantzun zaie azterlanean:

- **I. Zeintzuk dira herrietan euskararen erabilera sustatzeko aktibazio-prozesuetako gakoak?**

Zeintzuk dira eta nolako ezaugarriak dituzte Gipuzkoan herriko errealitate soziolinguistikoa eraldatu nahi duten erakunde publikoen, gizarte-eragileen eta herritarren arteko lankidetzaren esperientzia egokiak?

- **II. Zer prozesu egin liteke Gipuzkoan erakunde publikoen, euskalgintzaren, bestelako gizarte-eragileen eta herritarren arteko lankidetzaren modu eraginkorrean antolatze eta tokian tokiko errealitate soziolinguistikoa eraldatu ahal izateko?**


Nola landuko dira identifikatu diren gakoak aktibazio-prozesuan zehar? Aktibaziorako zein bide jorratu beharko litzateke? Bide horretan, zein urrats eman behar dira? Zein dira egin beharreko zereginak? Zein zaindu beharreko alderdiak?

4 IKERKETAN ERABILITAKO METODOLOGIA

Ikerketa-galderei erantzun nahian, hiru fase izan ditu ikerketa-prozesuak (*irudian ikusgai fasez fase egindako lanak*):

- Lehen fasean, hainbat arlotan herritarrak aktibatzea lortu duten bost esperientzia aztertu dira, aktibazioa eragiteko gako nagusiak zeintzuk izan diren identifikatzeko.
- Bigarren fasean, berriz, bi gune aukeratu dira gako horiek eguneroko lanean kontrastatzeko eta lantzeko.
- Hirugarren fasean, euskararen alorrean herritarrak aktibatzeke balio izan duen Euskaraldia ekimena aztertu da; zehazki, ekimen hori tokian toki martxan jartzeko antolaketa-moduei erreparatu zaie. Bost esperientzia aztertu dira.

Irudia 1: IKERKETAKO FASEAK



Jarraian, fase bakoitzerako xehetasunak aurkezten dira.

4.1 LEHEN FASEA: ESPERIENTZIEN AZTERKETA

Bost esperientzia ikertu ditugu, batzuk euskararekin loturikoak eta beste batzuk genero-berdintasuna, herrigintza eta kultur arlokoak. Esperientzia horietan aztertu dugu administrazio publikoak, euskalgintzak eta beste eremuetako gizarte-eragileek eta herritarrek elkarrekin nola jardun duten herri mailan. Hau da, beraien arteko koordinazioa, botere harremanak, eragiletza edo parte-hartzea nola egituratzen duten ikertu dugu.

Horretarako, esperientzietako hainbat eragilerekin elkarrizketak egin dira, eta gako izan diren alderdiak jaso ditugu.

Hasteko, **aztertu beharreko esperientziak hautatu** ditugu irizpide hauei jarraiki:

- Hartzaile kopuru handia edukitzea
- Elkarrekintzan garatua izatea (erakunde publiko eta eragile sozialak elkarrekin)
- Ahalduntzea edo autoeraketa eragitea
- Prozesu edo ekintza iraunkorra izatea
- Eragina sortu izatea balioetan edo portaeretan
- Gipuzkoan garatua izatea eta euskara lantzea
- Ibilbide luzekoa izatea

Irizpide horien arabera, bost egitasmo aukeratu dira 2016an aztertzeko, eta beste esperientzia bat gehitu zaie 2018an (Eibarko *Akebai*). Aztertutako esperientziak izaeraz ezberdinak dira: bi dira euskarari loturikoak, *Egian euskaraz bizi nahi dugulako* eta *Ttakun* euskara elkarteak. Gainerakoek feminismoarekin (*Emakumeen mundu martxa*), kulturarekin, okupazioarekin eta herri-ekimenarekin (*Astra kultur fabrika soziala*) eta udalgintza eta herrigintzarekin (*Herri-ola*) dute lotura:

- Gernikako **Astra kulturarako fabrika soziala**: *arlo publikoaren kudeaketan jendartearen parte-hartze zuzena bultzatzen duen espazio gisa definitzen dute euren burua. Berez ez da euskararekin lotutako proiektua, baina hizkuntzak izan du pisua eta erabileran ere izan du eragina.*
- Lasarte-Oriako **Ttakun euskara elkarteak**: gerora txoko askotara hedatu den euskara elkarte eredu aitzindaria da, 1986an sortua. Dinamismo handia izan du urte askotan eta ekimen indartsuen sorburu izan da.
- Otxandioko **Herri-ola herrigintza egitasmoa**: otxandioarren bizitza kalitatea hobetzea helburu hartuta, herritarren parte-hartzearen bitartez garatutako ideia eta proiektuak lantzen ditu Udalaren ekimenez. Hala, komunitatea trinkotu, herrigintza sustatu, garapen eredu berriak martxan jarri eta kultura politiko berria daude mugimenduaren ardatzean. Egitasmoaren barruan lantzen den arloetariko bat hizkuntzarena da eta euskara da, hain zuzen ere, komunikazioko ohiko hizkuntza.
- Donostiako **Egian Euskaraz bizi nahi dugulako** ekimena: oihartzun handia lortu zuen 2016ko hasieran gauzatu zen esperientzia aitzindari honek. Hauxe izan zen, beste esperientzia batzuekin batera, Euskaraldia antolatzeke erreferentzietako bat.
- **Emakumeen mundu martxa**: Kanadan sortutako nazioarteko ekimena da, emakumeen aurkako indarkeria eta pobrezia salatzen. Euskal Herrian garrantzi berezia eman zaio emakume etorkinen

egoerari eta aniztasunari. Aldarrikapena, ospakizuna eta elkartasuna konbinatzen ditu. Euskara izan da ekimen honetako hizkuntzetariko bat.

Ekimen horiei seigarren esperientzia bat gehitu zitzaion 2018an, hain zuzen ere, Eibarren garatzen ari den **Akebai** ekimena. Ekimen hori Eibarko euskararen plan estrategikoaren baitan kokatzen da, eta eragile desberdinen elkarlana originaltasunez landu dute.

Esperientzia horiek guztiek gai ezberdinak lantzen dituzte, eta badute beste ezaugarri bereizgarri bat ere. Batzuk prozesu iraunkorrek dira, hau da, egitasmu, lantalde, egitura eta ekintza ugariz osaturik daude: *Astra*, *Ttakun* eta *Herri-ola*. Horien baitan sortzen diren ekintzek hasiera eta amaiera dute, baina proiektua bera ez da desegiten, jarraipena du. Aztertutako beste batzuk, berriz, prozesu puntualagoak dira, nahiz eta biek izan nolabaiteko oinarri sendo eta iraunkorra: *Emakumeen mundu martxa* eta *Egian euskaraz bizi nahi dugulako*. Epe jakin baterako sortu ziren, eta, ekintza amaitutakoan, egiturak guztiz desegiten ez badira ere, intentsitate txikiagoko harremanak edo ekintzak geratzen dira. *Akebai* ekimenaren kasuan, ibilbidea hasi berria du, eta bokazioz modu iraunkorrean aritu nahi balu ere, ikusi egin beharko da zein bilakaera duen.

Esperientziei buruzko informazioa biltzeko elkarrizketa sakonak egin dira esperientzia bakoitzeko bizpahiru lagunekin. Elkarrizketetarako, sorreran eta gaur egun dabilzan lagunak aukeratu dira, proiektua ondo ezagutzen dutenak edota proiektuari buruzko iritzi kritikoa dutenak. Guztira hamalau elkarrizketa egin dira 2016ko maiatza eta iraila bitartean eta 2018an zehar. Gainera, esperientziei buruzko dokumentazioa ere aztertu da.

4.2 BIGARREN FASEA: GAKOAK LANTZEKO ESKU-HARTZEAK

Bigarren fase honetan, bi esku-hartze kontrolatu gauzatu dira. Bertan, gakoak landu eta berraztertu dira, eta aktibazio-prozesuaren proposamena prestatu da.

Hala, 2017ko urte hasieran, bi gune hautatu ziren aktibaziorako gakoak lantzeko, bereziki interesgarriak iruditu zitzaizkigulako zuten ibilbideagatik eta aurrera begira zituzten asmoengatik. Gune horiek Arrasateko euskalgintzaren mahaia eta Tolosako Galtzaundi euskara taldea Tolosaldeko eskualde osora zabaltzeko asmoa izan dira.

Arrasateko euskalgintzaren mahaiak aspalditik dihardu lanean herriko euskalgintzako erakundeen elkarlanerako gune gisa, Udala ere tartean dela. Hainbat saio egin dira bertako eragileekin aktibaziorako gakoak lantzeko. Proiektua bukatu aurretik eragile guztiak biltzen dituen Geike izeneko gunearen oinarriak landu dira, eta 2018an Arrasaten egin den Euskaraldirako oinarriak lantzeko prozesuan ere bidelagun izan gara.

Tolosako Galtzaundi euskara elkartearekin ere hainbat saio egin dira aktibaziorako gakoak lantzeko, elkarte honek Tolosaldeko eskualdera hedatzeko zuen asmoan baliagarriak zirelakoan. Proiektuaren azken urtean Tolosaldeko Euskararen Mahaiaren sorrera prozesuan bidelagun izan gara.

Bi esku-hartze horiek gauzatzeko, tokian tokiko euskalgintzaren egoera eta beharrak aztertu dira. Kasu honetan, Arrasateko eta Tolosaldeko euskalgintza izan

da aztergai. Hala, bakoitzaren egoeraren araberrako esku hartzeak diseinatu dira, kasuan kasu; izan ere, behin egoera aztertu ostean, bertakoekin adostu da zein gako komeni zen lantzea, bertan aktibazio handiagoa gauza dadin.

4.2.1 Arrasate

Arrasateren kasuan, erakunde asko ari dira euskara bultzatzeko ahaleginean, baliabide neurtu eta zerbitzu ugariarekin. Hala ere, nekeza gertatzen zen inpaktu handiko ekintzak garatzea eta erakunde guztiak helburu partekatu beraren inguruan lanean eraginkortasunez jardutea. Horregatik, esku-hartzearen helburutzat definitu zen lanerako baldintza aproposak sortzea, tokiko aktibazioan ekimen apaletatik inpaktu handiagoko jarduerak garatzeko.

2017-2018 urteetako esku-hartze hau Arrasateko euskalgintzaren mahaiari burutu zen, hau da, Arrasateko Euskara Planaren elkarlan hitzarmenaren baitako ekintza-taldeak gidatu zuen prozesua. Beraiekin adostu ziren herritarren aktibaziorako zein gako lantzea komeni zen Arrasateko euskalgintzan. Hauexek izan ziren hautatutakoak:

- Behar soziala
- Talde motorra
- Harremanak kanpora eta barrura begira
- Egitura ireki eta horizontalak
- Baliabideak (babes ekonomikoa)

Zehazki, zazpi bilera egin ziren Arrasateko euskalgintzarekin: hiru saio aktibaziorako gakoak lantzeko, eta beste lau bilera prozesua prestatzeko eta aztertzeko.

Arrasateko esku-hartzeaz balorazio positiboa egin zuten bertakoek, hainbat alderdi mugiaraztea lortu zela baitzioten. Honako iritzi hauek jaso ziren esku hartzearen balorazioan:

Taula 1: ARRASATEKO ESKU HARTZEARI BURUZKO BALORAZIOA

GAIA	LEHEN	ORAIN
Lidergoa	Udalak bilerak prestatu Elkarteak entzute jarrerarekin hurbildu	Talde Motorrak gidaritza hartu Elkarrekin eraikitzekeo jarrera hartu
Botere harremanak	Botere harremanak eta distantziak handiagoak	Botere harremanaz berba egin da. Botere harremanak egon badaude, baina leundu egin dira; denok beharrezko
Antolaketa, egitura	Elkarlana antolatzekeo lantaldeak	Talde Motorra erdigunean (lankidetzak irabazi) Euskaraldian lantaldeak sortu (denek ez dute ondo funtzionatu) Talde Motorrean erakundeetako ordezkari oso esanguratsua. Geiken erakunde oso handiak eta ordezkari oso eta harremana oliotatu barik (informazio trukea?)
Ardurak	Mahaiko partaideen artean ardurak "lausotu"	Talde Motorreko partaideek ardurak hartu. Lankidetzak eraginkorra (ardura banaketa)
Misioa, bisioa	Nahia bai, nola bideratzen jakin ez	Euskaraldiak mugimendua sorrarazi du
Balioak	Kritika + Konfiantza - Giroa -	Kritika gutxiago Konfiantza handitu Giro ona Talde Motorrean, gustura
Herritarrekiko hurbiltasuna	Saiakerak egin dira	Oraindik hutsuneak herritarrenganako loturak sortzeko (Euskaraldiak gauza asko erraztu). Ez dago egituratuta
Behar soziala	Anbizio gutxi. Bakoitza bere zilborrari begira	Lausotuta. Xede taldea: euskaraz jakin arren egiten ez dutenak (Belarriprestak)
Planifikazioa	Udalak planifikatu	Talde Motorrak eta lantaldeek planifikatu. Euskaraldian hutsune batzuk
Baliabideak	Proiektuetarako dirua	Proiektuak dinamizatzeko eta ekintzetarako dirua. Oraindik ere arazo, unean unekoa
Komunikazioa	Ezezagutza	Hutsuneak, komunikazio-aholkularien beharra dago, dakigunetik.

4.2.2 Tolosaldea

2017ko esku hartzearen helburu nagusia izan zen Galtzaundi Euskara Taldearekin aktibazioko ikerketan identifikatutako gakoak lantzea, Galtzaundik Tolosaldeko eskualde osora zabaltzeko egitasmoaren barruan.

Horretarako sei bilera egin ziren Galtzaundirekin. Bilera horien artean lau saio egin ziren Galtzaundiko kideekin aktibaziorako gakoak lantzeko eta beste bi bilera prozesua prestatu eta aztertzeko.

Hauek izan dira 2017ko saioen edukiak:

- 1. saioan behar soziala, talde motorra eta egitura landu ziren
- 2. saioan harremanak eta giro ona eta izaera parte-hartzailearen inguruko lanketa egin zen
- 3. saioan oinarri teorikoak eta komunikazioaren gaia aztertu ziren
- 4. saioan itxiera egin zen prozesuaren emaitzak aztertuta eta hurrengo faserako egitekoak aztertuta

Saio eta bilera horietan Galtzaundiko zuzendaritzako partaideek eta teknikariek parte hartu dute, eta honako iritzi hauek jaso ziren esku hartzea baloratzeko:

Taula 2: TOLOSALDEKO ESKU HARTZEARI BURUZKO BALORAZIOA

GAIA	BALORAZIOA
Ikerketa-proiektua	Ulertzeko zailtasunak izan dituzte, eta hobeto ulertuz gero etekin hobe aterako zioten Gakoak egokiak eta baliagarriak ziren Tolosalderako Erreferentzialtasuna eskaini die
Hausnarketa bideratu izana	Aurretik Galtzaunditik egina zuen, berresteko balio izan du
Transmisioa	Lantaldea aldatzen denean, bi taldeen arteko transmisio egokia bermatzea garrantzitsua da
Emozioak	Ikuspegi hau txertatu ahal izan da, asko sakondu ez bada ere Amets baten beharra, estrategia baino harantzago doana
Helburu argiak eta ekimen zehatzak	Emozioak, diruak... alderdi guztiak kudeatu beharra Ametsak eta zehaztasunak orekatuta
Lidergoa	Garrantzi handikoa dela irizten diote Pertseberantzia handia behar da, egoskorkeria harik eta beste guztiak konbentzitu arte
Elkarlana	Gizarte-erakundeak eta administrazio publikoa elkarrekin joateak ilusioa piztu du Konfiantza giroa sortu beharra Epeak eta erritmoak adostu beharra
Pertsonen garrantzia	Talde Motor kohesionatu eta konplizitate handikoa eraikitzeko, pertsonen arteko harremanen garrantzia

4.2.3 Saio orokorrak

Arrasaten eta Tolosaldean egindako saioez eta bilerez gain, beste saio batzuk egin dira, Arrasateko, Tolosaldeko eta Eibarko euskalgintzako eragileekin batera, guztiok elkar hobeto ezagutzeko eta elkarrekin lantzeko hainbat gai. Zehazki, hiru bilera antolatu dira:

- 1. saio bateratua: Arrasaten gosaria, 2017ko abenduaren 17an Tolosaldeko, Arrasateko eta Eibarko esperientziak ezagutzeko
- 2. saio bateratua: Donostian gakoan inguruan aztertutako kontrastatzeko
- 3. saio bateratua: Arrasaten, komunikazioa lantzeko 2018ko irailaren 14an; bertan izan ziren hizlari EHUKo Zesar Martinez eta Estitxu Garai

4.3 HIRUGARREN FASEA: TOKIAN TOKIKO EUSKARALDIAREN AKTIBAZIO-GAKOAK AZTERTZEN

Ikerketa-prozesuaren lehen bi faseak burututa genituela, 2018. urtean, euskalgintzak sustatutako aktibazio-ekimen esanguratsua gizarteratu zuen, Euskaraldia, alegia. Hala, interesgarritzat jo zen Euskaraldian herritarrek aktibatzen izan diren gakoak sakonago aztertzea; izan ere, Euskaraldiaren hainbat elementuk bat egiten zuten ordura arte hizkuntza-aktibaziorako identifikatuak genituen gakoekin; besteak beste, elkarlanarekin, talde motorrarekin...

Horiez gain, aktibazioaren ikuspuntutik, Euskaraldia oso interesgarria egiten dute zenbait ezaugarri:

- Erakunde publikoek eta gizarte-eragileek **elkarlanean** herritarren hizkuntzaren inguruko aktibazioa bultzatzeko ekimena izan da; beraz, bete-betean sartzen da tokian tokiko aktibazioko ikerketa-proiektuaren oinarrien barruan.
- Izan duen hedapenak aukera handia ematen du **ekimen bera toki desberdinetan** nola garatu den jakiteko.
- Esku-hartzeak egin ditugun bi tokietan **(Arrasaten eta Tolosaldean) landu dute.**
- **Euskaraldiaren** ikerketa orokorrean batez ere alderdi kuantitatiboa landu da; badago atal kualitatiboa ere, baina ez du eman sakontzeko aukera handirik. Ikerketa horren talde teknikoak ere begi onez ikusi zuen horrelako azterketa bat egitea, **ikerketa orokorraren osagarri** izango litzatekeelako.

Horiek horrela, 2019an "Euskaraldiko aktibazio-gakoak" aztertu dira; "Tokian tokiko hizkuntza-aktibazioa" ikerketaren hirugarren fasetzat har dezakegu. Hauexek dira planteatutako ikerketa-galderak:

- Zer erakutsi digu Euskaraldiak aktibazioari buruz?
- Herritarren aktibazioari dagokionez, Euskaraldiak zer aurrerapauso eta zer muga ditu? Eta zer faktorek eragiten dute horretan?

Galdera horien erantzunak topatzeko, oinarrizko elementu hauek adostu ziren:

- Ikerketaren lehenengo faseko esperientzien azterketa egin genuen moduan, antolamenduan jarri dugu arreta.
- Soilik antolamenduan ibili diren kideekin egon gara, batzordeetakoekin (erdigunean egon direnekin) eta ingurukoekin.

Era berean, ikerketaren lehenengo fasean, 2016an, esperientziak aztertzeko eta gakoak identifikatzeko metodologia berbera erabili dugu. Hala, lehenengo urratsa izan da aztertzeko guneak aukeratzea.

Hirugarren fase honetan ere, 5 gune aztertu dira, baina arrakastaren ikuspuntutik begiratuz, denetariko kasuak izan dira aztergai oraingo honetan, ez soilik kasu arrakastatsuak. Ondo joan direnetatik zailtasunak izan dituztenerainokoak, alegia;

arrakasta-maila desberdina izan duten esperientziak jaso ditugu. Hori kontuan hartuz, honako irizpide hauen bidez aukeratu dira guneak:

- Antolamenduari dagokionez,
 - Auto-eraketa
 - Batzordeen iraupena
 - Eragileen arteko eta eragileen eta erakundeen arteko elkarlana
- Emaitzei dagokienez,
 - Izen-emate kopurua
 - Hizkuntza-ohituretan izan duen eragina
 - Sortutako sareak konfiantzazkoak izan diren
 - Euskaldunen ahalduntzean izandako eragina
- Bestelakoak:
 - Aztertutako kasuen artean, aurreko faseko esku-hartzeren bat izatea, aurrez egindako lanketak eraginik izan ote duen aztertu ahal izateko.
 - Aniztasuna egotea tamainan eta eskualdeetan.

Hala, herri eta auzo hauek aukeratu ziren:

- **Arrasate:** lehendik lantzen jardun dugu parte-hartzearen kopuruak aurreikuspena gainditu du.
- **Ikaztegieta:** Euskaraldia amaituta, batzordeak lanean jarraitu du, eta atzerriko jatorrikoen integrazioa bultzatu da.
- **Donostia:** aukera eman du Donostiaz gain, auzoen azterketa egiteko.
- **Errenteria:** antolaketan zenbait berezitasun izan ditu.
- **Hondarribia:** antolaketan gorabehera batzuk izan ditu.

Behin aztertzeko guneak aukeratuta, guneei buruzko informazioa bildu da, elkarrizketen eta tailerren bidez:

- Euskaraldiko partaidetzari buruzko datuak jaso dira aurretik eginda dauden txostenetatik eta Euskaraldiko ikerketa orokorretik.
- Elkarrizketak egin zaizkie herri bakoitzean prozesu osoari buruzko informazioa duen norbaiti.
- Tailerra egin da antolatzaileekin: batzordeetan ibili direnekin (udal-technikariak, euskalgintzako langileak, euskararekin harreman profesionalik ez duten herritarrak...), eta batzordekide izan ez arren antolamenduan ibili direnekin.

Informazio hori guztia aztertu eta gune bakoitzari buruzko txostena idatzi da. Garapen taldean ondorio orokorrak adostu ostean, hirugarren fase honetako txosten bateratua idatzi da, eta emaitzen zabalkundea ere burutu da, 2019.urtean.

Behin hiru faseak burutu ostean, informazio guztia aintzat hartuz, ikerketa-galderei erantzun zaie. Hau da, herritarren aktibaziorako litekeen prozesua marraztu eta proposatu da, eta zaindu beharreko gakoak zeintzuk diren zerrendatu dira. Txosten honetako 6. atalean egiten da horien azalpena ("Garapena eta emaitzak" atalean, alegia).

5 ANTOLAKETA

Proiektu hau gauzatzeko, garapen taldea antolatu da. Bertan hartu dira proiektuari buruzko erabaki nagusiak eta aztertu dira ikerketaren emaitzak.

Garapen taldeak partaide izan ditu EHU eta Gipuzkoako Foru Aldundia, Soziolinguistika Klusterreko bazkideekin eta bulego teknikoarekin batera. Hauek izan dira partaideak:

- Zesar Martinez (EHUko Parte Hartuz Institutua): proiektuko zuzendari akademikoa³
- Helene Armentia (Elhuyar)
- Amaia Balda eta Ainhoa Lasa (Emun)
- Edurne Otamendi (Donostiako Udala)
- Mikel Ozaita (Euskaltzaleen Topagunea)
- Izaro Ugalde eta Joxean Amundarain (Gipuzkoako Foru Aldundia)
- Imanol Larrea eta Maialen Iñarra (Soziolinguistika Klusterreko bulego teknikoa)

Esku hartzeak lantzeko, bi azpitalde sortu dira:

- Tolosaldea: Mikel Ozaita, Izaro Ugalde, Edurne Otamendi eta Imanol Larrea lehen urtean, eta bigarrenean Joxean Amundarain Izaro Ugalderen ordez
- Arrasate: Amaia Balda, Helene Armentia, Joxean Amundarain eta Imanol Larrea

Gainera, garapen taldeak bi kontraste saio antolatu ditu 2018an, proiektuaren emaitzen inguruko kontrastea egiteko. Lehen saioan Arrasateko, Tolosaldeko eta Eibarko euskalgintzako kideek parte hartu zuten. Bigarren saioa, berriz, Soziolinguistika Jardunaldiaren barruan landu zen, eta Euskal Herriko euskalgintzako hainbat kidek parte hartu zuten.

Eibarko AKEBAIri buruzko txostena egiten Asmae Ourdi eibartarrak jardun du 2018an.

Euskaraldiko antolamendua aztertzen, berriz, Arrasaten Imanol Larrea (SLK), Ikaztegietan Mikel Ozaita (Euskaltzaleen Topagunea), Donostian Helene Armentia (Elhuyar), Errenterian Joxean Amundarain eta Beñat Egues (GFA) eta Hondarribian Ainhoa Lasa (Emun) ibili dira.

Emaitzen zabalpenerako azken euskarriak sortzeko ardura Soziolinguistika Klusterreko bulego teknikoak izan du.

³ Aktibista eta soziologia irakaslea EHU/UPVn. Landu dituen gaiak: parte-hartze politikoa eta komunitarioa eta herri-mugimenduetako prozesuen dinamizazioa (Martinez, Casado, & Ibarra, 2012). Ikerketa-ekintza eta formazio-proiektuetan lan egiten du.

6 GARAPENA ETA EMAITZAK

Ikerketak aurrera egin ahala, fasez fase, hainbat emaitza eskuratu da. Hala, datorren taula honetan bildu dira ikerketaren emaitzak jasotzen dituzten euskarriak⁴:

Taula 3: IKERKETA-PROZESUAN ZEHAR SORTURIKO EUSKARRIAK

Urtea	Emaitza	Edukiari buruz
2015	Diseinu-txostena	Ikerketaren hasierako planteamendua jasotzen da.
2017	Gakoen txostena	Lehen fasearen osteko txostena. Esperientzia arrakastatsuetako herritarrak aktibatzeo gakoak identifikatu ziren.
2018	AKEBAI esperientziaren txostena	Eibarko esperientziari buruzkoa. Lehen fasean kokatzen den txostena.
2017-2018	Arrasateko txostena	Bigarren fasearen osteko txostena, zehazki Arrasateko esku-hartzeari dagokio.
2017-2018	Tolosaldeko txostena	Bigarren fasearen osteko txostena, zehazki Tolosaldeko esku-hartzeari dagokio.
2019	Euskaraldia txostena	Hirugarren faseari dagokion txostena.
2019-2020	Ikerketaren azken txosten teknikoa	Ikerketa-prozesu osoaren berri jasotzen du. Honako txosten hau da.

Edukien aldetik, bi dira proiektu honen emaitzak eta atal honetan aurkeztuko dira jarraian:

- Prozesu proposamena: tokian tokiko herritarrak euskararen jiran aktibatzeo, balizko prozesu baten proposamena; hots, egin litekeen bidea.
- Aktibaziorako gakoak: tokian tokiko herritarrak euskararen jiran aktibatzeo, zaindu beharreko gakoak; aktibazio-prozesuan zehar berariaz landu behar direnak, alegia.

6.1 HIZKUNTZA-AKTIBAZIOA: PROZESU PROPOSAMENA

Ikerketa-prozesu honen hasieran, helburuak eta lortu nahi genituen emaitzak zehaztu genituenean, hizkuntza aktibazioa lortzeko metodologia proposamen bat definitzea ezarri genuen azken helmuga bezala.

⁴ Euskarri horiek guztiak eranskinetan txertatu dira ikerketaren azken txosten tekniko honetan. Horiez gain, ikerketa-emaitzen dibulgaziorako euskarriak ere sortu dira, txosten honetako 8.atalean azalpen gehiago.

Ikerketaren urratsak burutzen ari ginela, konturatzen hasi ginen metodologia hitza ez zela egokiena irudikatzen ari ginen proposamena izendatzeko. Hau da, herritarren aktibazioa ez dela metodo egoki bat jarraitzearen ondorio zuzena eta ziurra, eta "metodologia" hitzak horrelako zerbaite iradokitzen du; hots, jarraitu beharreko bidea eskuratu nahi diren emaitzak eskuratu ahal izateko. Baina gizartearen portaera ez da kontu matematikoa; ez da planifikatu, aurreikusi edota automatizatu daitekeen zerbaite. Hori baino konplexuagoa eta aurreikusiezina da.

Gure ikerketa-lanak herritarren aktibazioa erraztu ditzaketen urratsak eta eginbeharrak identifikatu ditu, baina, seguru asko, horiekin batera planifikagarriak ez diren beste baldintza eta elementu batzuk egon behar dira desiraturiko emaitzak lortu ahal izateko. Horrexegatik, aktibaziorako metodologiaz baino, egokiago iruditzen zaigu aktibaziorako prozesuaz hitz egitea. Gure proposamena, beraz, prozesu proposamena da; herritarren hizkuntza-aktibaziorako prozesuan irudikatzen ditugun fase eta zeregin nagusiak dira partekatu nahi ditugunak. Hau da, aktibazio sendo eta egonkor baterako jorratu daitekeen prozesu proposamena.

Eta, hala eta guztiz, aktibazio-prozesua txukun eta zainduta eginda ere, baliteke bilatzen dugun bezain besteko aktibazioa ez lortzea, ehunetik ehunean gure esku egongo ez diren beste faktore batzuk ere tartean egongo baitira. Era berean, kontrakoa ere baieztatu dezakegu; alegia, aldeko faktore eta koituntura egonda ere, ez badugu asmatzen prozesua behar bezala egiten eta zaintzen, aktibazio indartsua pizteko aukera galdu dezakegu. Hortxe dugu, beraz, gure prozesuzko proposamen honen funtsa, ez da aktibaziorako huts egiten ez duen errezeta ziurra; izan daiteke, ordea, kontuan hartu beharreko funtsezko alderdi eta zereginen irudikapen oso bat.

Aurrekoa kontuan harturik, hurrengo lau fase edo urratsaldi nagusitan irudikatu dugu aktibazio-prozesuaren proposamena:

- **Atariko lanak:** ekimena adosteko aurreprozesua.
- **Aurrelanketa:** komunikazio- eta mobilizazio-estrategia diseinatzea.
- **Ekitea:** ekimena martxan jartzea eta hedatzea.
- **Baloratzea:** ebaluazioa eta aurrera begirakoak.

1. Atariko lanak: ekimena adosteko aurreprozesua

Aktibaziorako ekimenak euskalgintzaren alorrean lanean ari diren pertsona batzuegan izaten du abiapuntu; **kide gutxi batzuen arteko solasaldi, ideia eta konbentzimendua izaten da abiapuntua**, edo elkarte edo eragile baten baitan sortzen den gogoia. Eragile edo kide motibatu horiek, hizkuntza aktibazioa pizteko zer egin daitekeen, zergatik eta zertarako euren artean partekatuz, **ekimenaren hasierako ideia edo norabidea paperera eraman eta zirriborratzea izaten da lehenengo urratsa**⁵.

⁵ Ekimena tokian tokikoa baino zabalagoa bada, Euskaraldia bezalako ekimen nazionala kasu, egitasmo orokor hori tokian tokiko errealitatera behar bezala egokitzea eta moldatzea ere garrantzi handikoa izaten da. Hori ere, beraz, izan daiteke lerro hauetan irudikatu nahi dugun aktibaziorako

Hasierako ideia zirriborratzea diogu komeni delako osatu eta zehaztu gabeko asmoa izatea, hain zuzen ere, **beste pertsona, eragile eta erakunde estrategikoekin osatuz eta zehaztuz joatea** (estragikokoak hain zuzen ere eremu edo gizarte-esparru ezberdinetako kideak/eragileak direlako eta horiekin lotura-lana egin dezaketelako), horrela, eragile berri horiek ere, ideiak eta zehaztapenak gehituz, ekimena bere egin ahal dutela ikus dezaten. Izan ere, modu zabalago batez mamitutako eta adostutako ekimena izatea bilatzen dugu.

Irudia 2: AKTIBAZIO-PROZESU PROPOSAMENAREN LEHEN FASEA



Abiapuntu honetan, beraz, orri gutxiko zirriborro moldagarria idazteaz gain (zer egin, zergatik eta zertarako aurkezten duen zirriborroa), zeregin nagusiak izango dira **estragikotzat jotzen diren pertsonekin, eragileekin eta erakundeetako kideekin solasaldiak, kafeak eta bilerak egitea**. Hau da, hainbat hartu-eman komeni dira zirriborroa aurkezteko, gogoia eta konbentzimendua transmititzeko, eta, irekitasunez eta malgutasunez, ideia edo zehaztapen berriak integratuz joateko. Aktibazio zabala bilatzen badugu, nahitaez lekua egin behar zaie besteen ekarpenei. Ezinbestean, beraz, hasierako urrats

prozesurako abiapuntu. Edo, behar bada, gure auzoan, herrian edo eragile kolektiboan Euskaraldia bezalako ekimena heldu aurretik aurreberoketa izan daitekeen aktibazio-prozesua egitea komeni zaigu.

hauetan zein geroko prozesu osoan zehar, proposatzeko eta besteei entzuteko modu abegikorra eta integratzailea izan behar dugu. Eta, jakina, ahalegin horren ondorioz gure hasierako zirriborroa moldatzeko gaitasuna behar dugu. Horrela, pertsona eta eragile gehiagok bere egin ahal izango dute ekimena, hasiera-hasieratik eta euren begiradatik ekarpena egiteko aukera dutela sentitzen dutelako.

Hasierako kontaktu eta solasaldien txanda edo lanaldi honek –eragile eta pertsona ezberdinen arteko hurbilketak egitea, talde eragile zabala eta askotarikoa osatzea eta indarren zein baliabideen batuketa sortu nahi dituenak– balioko digu beste pertsona eta eragile horien egoeraren irakurketa, gogoia eta ekiteko borondatea nola dauden testatzeko ere. Horrela, ezinbestekoak diren egoeraren irakurketa hurbilak, borondate partekatuak eta baliabideen eskuragarritasuna (denbora, energia, diruak...) zertan diren aztertu beharko dugu.

Horrekin batera, aktibaziorako ekimena abiatzeko ditugun indarguneak eta ahulguneak modu errealista eta zintzoan ponderatzea komeni da. Konturatuko gara alderdi batzuetan ahul gaudela eta beste batzuetan nahiko sendoa, eta, ondorioz, lortuko dugu ahulgunez jakitun egotea eta horiei arreta berezia jartzea prozesu osoan zehar. Eta jakina, indarren eta baliabideen kalkulu errealista horren arabera, ekimena bera berdimentsionatu egin beharko dugu.

Herritarren aktibazioari begira, eragile sozialen arteko elkarlana zein eragile sozial eta instituzionalen arteko elkarlana onuragarria iruditzen zaigu ekimenaren babes sinbolikoa zabaltzeari begira, baita baliabide gehiago mobilizatzeari begira ere. Elkarren aitortza, parez pareko elkarlana eta funtzio-banaketaren inguruko adostasun argia sortzea funtsezkoak izango dira ezberdinen arteko elkarlan horrek ondo funtzionatzeko.

Atariko aurreprozesu honetan aurrera egin ahala, **Talde Eragilea osatzeko zein pertsona eta eragilerekin konta dezakegun** ikusi ahal izango dugu. Horrela, hasierako zirriborroari eragile bakoitzak egindako ekarpenak gehituz, zirriborro berria aurkezteko eta denon artean adosteko lehenengo talde eragileko bilerak deitu ditzakegu. Gizartean eragin zabala izan nahi badugu, idealena litzateke konpromiso modu ezberdinak (inplikazio eta lan-ardura maila ezberdinak) onartzen dituen egitura sortzea: talde eragile zabala, heterogeneoa eta berria (orain arte elkarrekin jardun ez duena); kolaboratzaile sarea (ezin dira talde eragilean egon baina haiekin konta liteke); eta entitate kolaboratzaileak (lotura edo nodo lana egin dezaketena eta zabalpenean lagunduko dutenak).

Atariko fase honetan, beraz, helburua bikoitza litzateke: **ekimenaren egitasmoa modu askotarikoan adostea** eta **talde eragile sendoa zein kolaboratzaile sare zabala osatzea**.

Helburu horiei begira, talde eragileko lehenengo hartu-eman eta bilera hauek funtsezkoak izango dira, eta ez soilik aktibaziorako egitasmoa modu kohesionatuan adosteko, baita ezinbestekoa den talde-kohesioa eta lan-giro adeitsua eraikitzeo ere. Izan ere, taldearen heterogeneotasunaren baitan, elkarren aitortza nagusitzea, inork patrimonializatuko ez duen protagonismo kolektiboa eraikitzea, **lidergo partekatuak sortzea** eta denok izatea ahotsa eta erabakimena modu orekatuan, ez dira berez suertatzen diren osagaiak. Talde Eragileak **barne-prozesu kontzientea** egin behar du osagai horiek eraiki ahal izateko.

Aztertu ditugun esperientzietan antzeman dugunaren arabera, bilera eta hartu-eman horiek inertziari edo inprobisazioari utzi gabe, ondo prestatu eta metodologia zein dinamizazio zaindua behar duten elkarguneak dira: gauzak irekitasunez planteatzea eta proposatzea denon artean aztertzeke, mintzatzeko txanda osoak eta orekatuak egitea, guzti-guztietan modu berdinean entzutea eta ezinbesteko sentiaraztea, ezadostasunak denborarekin eta modu sortzailean kudeatzea eta erabakietan denon ahotsa egotea. Horiek guztiak funtsezko lan egiteko moduak eta harremanak izateko moduak dira ezberdinen arteko elkarlanak behar duen elkarrekiko konfiantza eta konplizitatea eraiki ahal izateko.

Izan ere, egitasmoa adosteaz eta talde eragilea osatzeaz gain, **lanaren banaketa eta antolaketa** irudikatzen hasiko gara, hau da, nor arduratuko den egiteko bakoitzarekin (azpiegitura, komunikazioa, harremanak, baliabideak...). Dena den, hauetako zeregin eta ardura gehienak prozesuaren hurrengo urratsaldian definitzea aurreikusten dugu, ekimenaren nondik norako nagusiak definituko baitira talde eragileko barne-lanketa sendo baten bitartez.

2. Aurrelanketa: komunikazio- eta mobilizazio-estrategia diseinatzea

Hizkuntza-aktibazioak hizkuntza portaeran eragin nahi duen elkarlana, ekimena eta mobilizazioa martxan jartzearekin du lotura. Mezu, proposamen eta aktibitate zehatzen bitartez gauzatu beharra dago herritarren aktibazio hori. Nolabaiteko debate soziala eta interpelazioa sortuko duen diskurtsoa eta gonbit berritzailea behar da, gizartean motibazioa eta praktika-aldaketa piztuko duena.

Eta horiek guztiak lanketa sortzailea behar duten elementuak dira bilatzen dugun efektua sor dezaten. Modu arinean eta inprobisatuz prestatuz gero, betiko mezu eta proposamenetan gelditzeko arriskua dugu. Horrexegatik, komunikazioaren eta mobilizazio-estrategiaren aurrelanketa sakona eta ondo prestatua proposatzen dugu. Denbora garrantzitsua eskaini behar zaio atal honi. Horretarako, aurreko fasean osatu dugun Talde Eragileko kideek **saio edo tailer monografikoak** egitea proposatzen dugu, gutxienez hiru arlotan:


- **Beste esperientzien berri** izan. Bisita, hitzaldi, mahai-inguru edo formazio-saioen bitartez talde eragilearen sormena akuilatzea bilatzen dugu. Zerk piztu du aktibazioa beste inguruetan? Zeintzuk dira gaur egun ezinbestean kontuan hartu beharreko faktoreak? Zer da antzeko eta zer bereizgarri gure inguruan? Hizkuntza-aktibazioa zein proposamen eta aktibitatearen inguruan ardatzuko dugu?
- Gure inguruneke (auzoa, herria, eskualdea,...) **sareen mapeoa** egin: nolakoa den eragile formal eta informalaren sareen mapa gurean; egitura irudikatu; nortzuegana iristea nahi dugun zehaztu; sare bakoitzaren topaleku naturalak zein diren identifikatu. Zeintzuk diren xede talde ezberdinak eta zer sektoretara iritsi nahi dugun eta horretarako non mugitu behar garen, zein saretan, zein espaziotan, zein topalekutan. Honen inguruko saio espezifikokoak eta ondo landuak proposatzen ditugu.
- **Komunikazio eta sormen saioak.** Mezu, irudi eta aktibitate erakargarrien definizioa egiteko: zer mezu izango ditu gure ekimenak? Hartzaileen araberrako mezu desberdinak beharko ditugu?

Zein diskurtso erabiliko dugu? Gidoia eta argudiotegi bat izango dugu diskurtso berria hedatzeko? Adierazpen formal bat egingo dugu? Zein irudi, logo eta lelo zabalduko dugu? Sare digitalen erabilera nolako izango da? Hori guztia, inprobisazioari utzi gabe, lanketa-prozesu monografiko eta ondo prestatua behar duen zeregina da. Elementu sinboliko horien guztien garrantzia ez baita nolana hiko gaur egungo komunikazio sozialean, eta euskalgintzak badauzka komunikazioan adituak diren hainbat kide eta eragile horretan laguntza ederra eman dezaketanak.

Horrela, ekimena bera eta bere osagai guztiak modu sortzaile eta berritzailean definitzera iritsi gaitzke: zerk funtzionatu dezake gurean? zerk piztu dezake gure lurraldeko jendearen jakin-mina, motibazioa eta atxikimendu aktiboa? Zeintzuk dira emozioak mugitu eta bizipen gogoangarriak sortuko dituzten proposamenak, herritarren subjektibitateak ukitu eta hizkuntza-praktikak aldatzeko urratsa lagunduko dituztenak?

Modu idealean, hiru arlo horietan aurre-lanketa monografikoak egitea irudikatzen dugu gure hizkuntza-aktibazioaren ahaleginak oihartzun zabala eta desiraturiko emaitza eduki ditzan. Baita ekimenera pasa aurretik kontraste-tartea egin eta, eskala txikian, sortu ditugun mezu, irudi eta ekintza-proposamenak nahi dugun bezala jasotzen diren probatzea ere; eta, jakina, proba horien araberako moldaketak egiteko malgutasuna erakustea.

Irudia 3: AKTIBAZIO-PROZESU PROPOSAMENAREN BIGARREN FASEA




Era berean, saio monografiko horien lanketak talde eragilea trinkotzeko eta ilusionatzeko ere balio behar du. Beraz, ezinbestekoa izango da erabaki beharreko guztiak arestian aipaturiko **giro adeitsu eta orekatuan** erabakitzea. Talde eragileak bere kohesio prozesu kontzientea egiteko baliatu ditzake saiook; elkar-ezagutza eta konfiantza giroa eraikitzeke aukera gisa.

Pertsona eta eragile ezberdinen arteko elkarlana, antolaketa eta ekintzak, ondo kohesionatutako eta saretutako talde eragile batek burutzen duenean, bere proposamenekiko erakarpena sortzen du. Hizkuntza erabiltzeak behar duen moduko auzolan-balioak eta hizkuntza-praktiken inguruko atxikimendu efektiboak lortu nahi baditugu, auzolan- eta herrigintza-praktika horiek guk geuk gorpuztu eta horrek sortzen digun giro ona, poza eta garapen pertsonala irradiatu behar ditugu.

3. Ekitea: ekimena martxan jartzea eta hedatzea

Aurreko fasean definitutako komunikazio- eta mobilizazio-estrategia egutegian planifikatu eta garatzeko fasea dugu hau. Gure mezu, irudi eta diskurtsoak harreman-sare eta komunikabide ezberdinetatik hedatzea, eta euskararen inguruan zabaldu nahi ditugun interpelazio eta proposamenekin debate soziala sortzea, hori dugu helburu. Hots, lortu behar da txinparta piztea eta hauspotzea **herri-ekimenak erakutsi behar duen freskotasuna eta herrikoitasuna** galdu gabe; hau da, ideia ez da erabateko profesionalizazioa behar duen laborategiko esku-hartze artifiziala egitea eta azaleko marketing-operazioan geratzea.

Irudia 4: AKTIBAZIO-PROZESU PROPOSAMENAREN HIRUGARREN FASEA



Herri-ekimenak kalean eta eguneroko harreman-sare informaletan zein, gaur egun, sare digitaletan du bere ekosistema. Ez dira gutxi ezagutu ditugun eta aurrerantzean ere ezagutuko ditugun baliabide urriekin abiaturiko herri-ekimen arrakastatsuak, sekulako mobilizazioa eta aktibazioa sortarazi dutenak. Beraz, gizartearekin konektatzeko behar den intuizioa, espontaneitatea eta hurbiltasuna ere kontuan hartu beharko ditugu.

Idealena litzateke ilusioa piztuko duen aktibaziorako ekimen ulerterraza asmatzea, tokian tokiko erreferentzia eta kultura lokalarekin loturikoa eta, ahoz aho zabaltzeko moduko erronka kolektibo erakargarria izan daitekeena. Era berean, euskaltzaleek bere egin eta subjektu aktibo bilakatzeko moduko proposamena bilatzen dugu; hau da, planifikatua da baina ez guztiz itxia, baizik eta moldagarria, irekia. Eta horrela aukera ematen die ekarpen gehigarria egin nahi dutenei: euskaltzaleek bere ingurukoei proposatu eta euren giro zein sare sozialetan dinamikaren errepikagailu izateko aukera edukitzea.

Izan ere, esku-hartze sozialaren lana ez da bulego lana nagusiki, nahiz eta bilera eta lau hormen arteko lan dezente eskatzen duen. Batez ere kale lana da; hain zuzen ere, harekin eta bestearekin egotea, entzuten eta interesguneak integratzen jakitea, proposamen erakargarri eta ilusionagarriak egiten jakitea, eta gizarte-sektore ezberdinen topaleku naturaletara iristea.

Horrexegatik funtsezkoa iruditzen zaigu arestian aipaturiko giro ona, jatorria eta irekitasuna transmititzea. Gizartean eragiteak pertsona eta talde eragilean lidergo erakargarria eta aglutinatzailea behar duen zeregina dirudi, beste hainbat faktorearen artean (gure esku daudenak batzuk, gure eraginpean egon daitezkeen beste batzuk eta gure esku ez dauden beste batzuk tarteko).

Azken finean, nolabaiteko korrante edo olatu zabala eragin nahi dugu, ahalik eta jende gehiagorengana iritsi nahi duena, erakarri nahi duena. Egunerokoan euskaraz egiten dutenak legitimatuago eta ahaldunduago senti daitezen, praktika horretatik hurbil daudenak gehiago animatu daitezen; axolagabeak interpelatu eta mugiaraziko dituen eta aurkakoak ahulago sentiaraziko dituen.

Izan ere, gure ekimenak **erresistentziak eta kontrako diskurtsoak** ere sortarazi ditzake (aurreiritzi, beldur, kezka, etiketa...), eta horiek alde aurretik zerrendatzea, talde eragilean ageriko egitea eta diskurtsiboki lantzea kontuan hartu beharreko zeregina dugu. Gizartearen jokaera hegemonikoetan aldaketa eragin nahi izateak berarekin dakar alderdi gatazkatsua, kontrako indarrak eta oztopoak. Momentu zailetan eta ahulenetan horren kontzientzia ez galtzea ere funtsezko lanketa dugu talde eragilean eta, orohar, ekimenaren garapenean. Batez ere indar-korrelazioa oso kontrakoa den testuinguru soziolinguistikoetan.

Zentzu horretan, talde eragile zabala, heterogeneoa eta ineditoa osatzea bada gure ekimenaren helburuekiko axolagabe jokatzeko dutenengana iristeko elementu garrantzizkoa. Gainera, gure helburuekiko kontrara jokatzeko dutenen aurrean atxikimendu eta aurrerapauso berriak lortzen ari garela erakusteko modua ere bada, indar-korrelazioa eta aldaketa-joera gure alde egiten ari dela erakutsiz.

Izan ere, herritarrak aktibatzea eta normalean iristen ez garen giro zein harreman-sareetara iristea helburua izanik, talde eragile zabal eta heterogeneoak (jatorri kultural, ideologiko, euskararekiko harreman eta ibilbide, adin-tarte, genero eta klase sozial ezberdinak kontuan hartuta, besteak beste) euskararen unibertsoa eta euskararen erabilerara erakarri nahi ditugun hiztun mota eta hiztun identitate ezberdinengana iristeko bidea zabaldu dezake. Eta, kontrara, talde eragile murriztagoa, homogeneoa eta bere osaketan berrikuntzarik ekartzen ez duena mugatuago egon daiteke hiztun identitate ezberdinengana iristeko. Hain zuzen ere, aktibaziorako prozesuak hiztun ezberdin horien interesak, nahiak eta ezinak

kontuan hartuz, euren zailtasun eta ahaleginaren arabera ekimena proposatu behar du, eta proposamen hori euren gaitasuna hurbildu.

Horretarako, talde eragilea osatzerakoan nahasketa, aniztasun eta konplexutasun hori gorpuztea eta erakustea aurrerapausoa izango da harreman-sareen lotura berriak josi ahal izateko eta ehun sozialaren konbinazio berritzaileak aktibatu ahal izateko. Talde eragilea eta aktibazio-prozesuaren partaideak aniztasun eta konplexutasun horretan murgiltzea komeni da; hau da, ezberdinen artean malgutasunez nahastea. Gure erosotasunak, ziurtasunak eta pertenez-entimenduak beldurrik gabe zabaltzea eta ezohikoak ditugun elkar-ekintzak izatea interesgarria iruditzen zaigu gure helburuekiko axolagabe jokatzeko dutenengana iristeko, eta aurka jokatzeko dutenak ahultzeko edo neutralizatzen.

Azken finean, gizartea aldatzea prozesu konplexua da. Hizkuntzen alorrean ere indarrean dauden asimetriak eta aukera-ezberdintasunek egiturazko sustrai historiko luzeak dituzte, eta baita eguneroko jokaeretan finkatu diren pribilegio, erosotasun eta inertziak ere. Ondorioz, jokaera hegemonikoak eraldatu nahi izateak erresistentziak eta aurkako indarrak ere sortzen ditu. Horren aurrean, erronka dugu proposamenak eta dinamikak berrasmaketa, interpelatzeko, harritzeko eta antzintzeko efektua izan dezaten.

Izan ere, berrikuntzak eta aldaketak ez datoz identitate finko eta estankoen eskutik (Zibechi, 2007). **Aktibazio-prozesuetan ezberdinen artean nahasteko irekitasuna eta malgutasuna erakutsi behar dugu.** Beste adin, kultur-jatorri, ideologia, euskararekiko harreman eta klase sozialeko herrikideekin aritu eta ikasteko aukera aberatsa eta emankorra sortu behar dugu. Horrela soilik sustatu ahal izango ditugu ehun sozialaren sarete eta konbinazio berriak indarrean dauden hizkuntza-praktika hegemonikoak, erosotasunak eta inertziak gainditu ahal izateko. Eraldaketa sozialen aldeko sarete horiek behar bezala zainduz gero, aldarrikapen eta praktika-aldaketa ezberdinen inguruan aldiro aktibatu daitezkeen mobilizazio sareak elikatu daitezke, eta horrela euskalgintzak beste herri-mugimenduekin dituen loturak sendotzea lortu.

Azkenik, aktibazio-prozesuaren fase honetan gure komunikazio- eta mobilizazio-proposamenak garatzeaz gain eta ekitaldi formal zein kale ekintzen bitartez iritsi nahi dugun gizarte-sektore ezberdinen topalekuetara hurbiltzearekin batera, gure ekimenak aktibatu egin behar ditu sortarazten dituen bizipenak, erreakzioak eta erantzunak jasotzeko moduak. Hau da, oinarriko informazio kuantitatibo eta kualitatiboa jasotzea aurreikusi behar da, ondoren, gure ekimenen balorazioa egin ahal izateko (inpaktua, emaitza), baita parte-hartzaileen inguruko oinarriko ezagutza eta kontaktatzeko modua eskuratzeko ere. Hori guztia hizkuntza komunitatea saretu eta trinkotzeari begira funtsezko informazioa izan daiteke.

Aktibazio-prozesuaren faserik biziena eta estresagarriena izaten da hau. Beraz, inoiz baino gehiago zaindu behar dugu ardura eta lanen banaketa, eta ekimenen antolatketan parte hartzen duten kideen arteko komunikazioa eta giroa. Lan prozesua emaitza bezain garrantzitsua da; aktibaziorako ahaleginak hondar edo zapora ona uzten badu, hurrengo urratsetarako indarra hartzen ari gara. Antolatzaileek erreta eta gogaituta amaitzen badute, aldiz, hizkuntza komunitatearen indarrak xahutzen gabilta. Horrexegatik garrantzia du ekimenen

bitartez sortutako giroaz elkarrekin gozatzeak eta lortutako fruituak elkarrekin ospatzeak ere.

4. Baloratzea: ebaluazioa eta aurrera begirakoak

Behin aktibazio-prozesuaren momenturik bizienak pasaturik, ekarpena egin duten guztiei eta parte hartu duten guztiei **eskertza eta zorion mezua** helaraztea komeni da. Ondoren, atsedenerako tarte hartzea ere garrantzitsua da. Indarrak berreskuratzeaz gain, egindako eta bizitako gauza guztiak behar bezala hausnartzeko eta baloratzeko ondo etorriko zaigu atsedena eta distantzia apur bat hartzea perspektiba zabalago baten baitan kokatu ahal izateko.

Gauzak osasuntsu egiteko atsedinari eman behar zaion garrantzia eta tarte eman eta gero, beraz, prozesuan zehar eman ditugun urrats ezberdinez gogoetatzeko eta baloratzeko fasea dator. Gainera, lortu nahi genituen emaitzak ea lortu ditugun aztertu behar da, prozesuan zehar bildu dugun informazioaren arabera eta orain testatu beharko ditugun borondate, hizkuntza-praktikaren aldaketa eta konpromiso berrien arabera.

Irudia 5: AKTIBAZIO-PROZESU PROPOSAMENAREN AZKEN FASEA



Balorazioaren fase honetarako, beraz, hasierako egitasmo adostuan ezarri genituen helburuak eta desiraturiko emaitzak berreskuratuko ditugu, zein neurritan bete ditugun aztertu ahal izateko. Helburu eta emaitza horietatik lehenengo eta behin komeni da aztertzea **zein pertsona edo eragileri proposatu ahal diogun euskararen sustapenaren alorrean elkarlanean jarraitzea**: zein pertsona eta eragile aktibatu ditugu gure ekimenaren bitartez? Aktibatu ditugun horietatik zeintzuk dira soilik puntualki aktibatuko direnak baina ez lan iraunkorren? Zeintzuk egon daitezke prest euskararen sustapenerako lan-espazioren batera inkorporatzeko modu iraunkorren? Zeintzuk ekarpen puntualak egiteko? Zelan elikatuko dugu sare hori? Zein da euskararen komunitatearen irudikapen berria (osaketa, egitura...)?

Hau da, aktibaziorako ekimenaren hasierako egitasmoan mota eta izaera ezberdinetako helburuak egon zitezkeen, baina hizkuntza komunitatearen saretze, trinkotze eta antolatzearen ikuspegitik eta gure ekimenak lortu dituen aurrerapausoak modu iraunkorren finkatu ahal izateko, komeni da aztertzea aktibaziorako ekimenak aktibatu dituen pertsona/eragile horietatik zeintzuk diren inkorporatu ahal direnak euskalgintzako lan-mahai edo espazioren batera; eta zeintzuk gelditzen diren egonean baina aldeko prestasun batekin kolaboratzeko eta ekarpenak egiteko.

Baloratu eta aztertu beharreko bigarren eremua litzateke **aktibaziorako ekimenak zein bizipen, erreakzio eta erantzun sortu dituen** modu zabalago batez gure ingurune sozialean. Hizkuntza-kontzientziari dagokionez, taldeko eta maila pertsonaleko hizkuntza-praktikak berreikusteari eta aldatzeari dagokienez, edota euskararen hiztun bezala ahaldunduago sentitzeari dagokionez, zein bizipen eta ondorio sortu ditu gure ekimenak? Definitu genituen mezu, irudi eta aktibitateak nolako harrera izan dute? Zerk funtzionatu du nahi genuen bezala eta zerk ez? Nahi genuen debate soziala piztea lortu dugu? Nahi genuen bezala ulertu dira gure interpelazio eta proposamenak? Iritsi gara iritsi nahi genuen gizarte-sektoreetara? Bizipen gogoangarriak bizitzea, emozioak mugitzea eta subjektibitateak ukitzea lortu dugu? Prozesuan zehar jaso genituen informazio kuantitatibo eta kualitatiboak aztertzeko momentua da, baita informazio horretan gabeziarik egonez gero osatzeko ahaleginen bat egitekoa ere.

Azkenik, hirugarren eremu inportantea ere baloratu beharra daukagu: talde eragileak zein bere bitartez antolakuntza lanetan parte hartu duten gainerako lantalde eta kideek, **barne-balorazio zintzoa** egin beharko dute **irakaspenak identifikatzeari begira**: Zer egin dugu ondo gure funtzionamendu eta antolaketan prozesuaren urratsaldi bakoitzean? Zer dugu hobetzeko? Zer bota dugu faltan?

Ebaluazio ariketa hauetan, prozesu osoan zehar egin dugun bezalaxe, asko zaindu beharko dugu lan-saioen eta bileren prestaketa, metodologia eta dinamizazioa. Izan ere, alderdi horien guztien balorazio zintzoa egin nahi badugu, kritikak eta auto-kritikak egin beharko ditugu, eta baldintza eta lan-giro aproposak sortu beharko ditugu (espazioa, momentua, entzuketa...) inori mingarri suertatu gabe kritikak modu eraikitzailean egin ahal izateko. Horrela, fase honetatik ere, lantalde bezala indartuta ateratzea bilatu behar dugu.

Eremu horretan zein aurrekoetan egindako gogoeta eta balorazioekin, aktibazio-ekimenaren memoria edo ondorioen txosten labur bat idaztea, partekatzea eta

zabaltzea (gizarteratzea) zoragarria litzateke. Horrela, aurrera begira jarrita, saiakera eta ekimen berrietarako irakaspen batzuk jasota utziko genituzke eta etorriko diren ekimenetarako informazio baliotsua laga. Memoria horretan, balorazio-eremu ezberdinak kontuan harturik, gogoetatu ahalko ginateke funtsezkoa izango dugun azken galdera hauez: hizkuntzaren aktibazioaren bidean, non gaude orain? Aurrera begira zeintzuk izan daitezke hurrengo urratsak? Aktibazioaren bidean hurrengo urratsen lanketarako ezinbestekoa izan daiteke memoria hori.

Azkenik, elkarrekin lan egiteak sortzen dituen bizipen eta konplizitate guztiak (une politak eta barreak zein estresak eta tentsioak) abiapuntu polita izaten dira egindako ahalegina elkarrekin ospatzeko. Horrela harreman-giro adeitsua eta elkarrekin lan egiteko gogoia elikatzen jarraituko dugu hurrengo egitasmo edo saiakerari begira.

6.2 HIZKUNTZA-AKTIBAZIORAKO GAKOAK

Aktibaziorako, kontuan izan edo zaindu beharreko sei gako identifikatu dira: behar sozial bati erantzutea, oinarritzko teoriak eta diskurtsoak adostea, administrazio publikoak eta gizarte-mugimenduak elkarlanean aritzea, modu horizontalean antolatzea, talde eragilea eratzea eta prozesua nola egiten den zaintzea. Horiek azalduko dira atal honetan.

1. Behar sozial bati erantzun

Aktibazio-prozesuak behar sozial bati erantzun behar dio. Kritika, kezka edota ardura sortzen duen egoera batetik abiatuz, helburua izan ohi da zerbait hobetzea; helburu positiboa dago kasu guztietan, alegia. Esperientzia guztiek bilatzen dute egungo hutsuneak betetzea edo egungo joerak iraultzea, eta, horretarako, paradigma aldatu eta beharizan horri erantzun dion dinamika berria sortzen dute.

Behar horren kontzientzia edota zilegitasuna gizartean nahiko hedatua ez badago, **elikatu, estimulatu edo sorrarazi** egin behar da lehendabizi, garrantzitsua baita **herritarren kezkekin konektatzea** eta **aktibatzeke nahia edota gogoia piztea**. Izan ere, herritarrak aktibatu egiten dira kezkagarria den zerbait eta desiragarria egiten den zerbait lortzeko aukera antzematen dutenean, eta horretan ekarpena egiteko bidea ikusten dutenean. Hala, aktibatu egiten dira hobetu daitekeen zerbait hobetzeko beharra sentitzen dutenean, beharizan sentitua agertzen denean.

Beharra mota askotakoa izan liteke, esate baterako ingurunean euskararen presentzia eta erabilera handitzeko beharra, galera hori gelditzeko beharra, pentsatzen eta egiten dugunaren arteko kontraesana gainditzeko beharra, korapilo bat askatzeko beharra, joera negatibo bat gelditzeko eta alternatiba sortzeko beharra, bizi nahi dugun bezala bizitzeko beharra edo euskaraz bizitzeko beharra.

Beharizan ezberdinak egon daitezke, eta baliteke horiek **ikusarazi eta estimulatu beharra izatea ere**, kontzientziak ukitzeko eta subjektibitateetara jaisteko estrategia gisa, **askoren edo batzuen beharizan horren zilegitasunak denon onarpena izan dezan**. Alegia, euskaltzale kontzienteek interpelatu egin nahiko dituzte horrenbesteko kontzientzia ez dutenak. Horrela, herritarren babesa lor dezake prozesuak, eta sinesgarritasuna eta legitimotasuna eskura dezake.

Nola joratu bide hori, ordea? Erronka izaten da beharizan horien inguruan diskurtso propioa sortzea eta portaerak aldatzeko heldulekuak eskaintzea, hiztunek babesa eta ahalduntzea sentitu dezaten. Inor kanpoan uzten ez duten diskurtso berritzaileak erabiltzea komeni da, horrela piztuko baita ilusioa eta lotuko baita aktibazio-prozesua aldaketa positibo batekin. Bide hori urratzeko, adibidez, ikerketa soziolinguistikoak aintzat hartzea baliagarri izan daiteke.

2. Oinarritzko teoriak eta diskurtsoak adostu

Ikerketan zehar ikusi da esperientzien sorreran oso garrantzitsua izan dela teoria edota ikuspegi ideologikoa lantzea (arlotz soziolinguistikoa, hizkuntza portaeretan eragiteko alderdiak...), batzuetan hizkuntzaz kanpoko beste teoriak bereganatuz (antolaketa kolektiboaren dinamizazioa, parte-hartze prozesuak, harremanak eta

alderdi psikosozialak, komunitatearen artikulazioa eta trinkotzea, emozionaltasuna eta gorputz zapalkuntza harremanetan...). Oinarri hori lantzeak abiapuntu sendoa emango dio aktibazio-prozesuari. Hau da, **hizkuntzaren eta herri-mugimenduen alorreko teoriak eta proposamenak lantzea** komeni da.

Funtsezkoa da, bestalde, oinarri teoriko-ideologiko horiek denon eskura egotea (ez gutxi batzuen eskura), eta, praktikarekin lotuz, denok barneratzeko moduan jartzea, baita teoria praktikarekin hornitu eta beste esperientzia arrakastatsuen berri izatea ere, horietatik ikasteko.

Oinarri teorikoa funtsezkoa bada ere, ibilbidea bera izan ohi da hezitzailea arlo teorikoan zein praktikokoan. Parte-hartzaileek ekintzak garatu bitartean harremanak sortzen dituzte, eta esperientzia trukearen bidez ezagutzak osatzen joaten dira. Pertsonen, ideien, ezagutzen eta ekintzen mugimendua sortzen da, eta hori bera hezitzailea izan da, emaitzak eurak baino gehiago. Prozesua bera da emaitzetako bat, alegia.

Norberaren zirkulutik haratago irekitzea, begirada urrunago zabaltzea eta bestelako praktikak eta etiketak dituztenekin bidea egitea eskatzen du halako prozesu batek. Hori bizitzeak aukera ematen du norberaren deserosotasunak, erresistentziak, mugak eta kontraesanak ikusteko eta lantzeko. Hazkunde pertsonalaren (eta kolektiboaren) aldetik aberasteko, osatzeko eta ahalduntzeko aukera zabaltzen du; betiere, ekintza eta ekintzaren gaineko hausnarketa orekatuz eta, norbera izateari utzi gabe, gure identitatea modu poliedrikoago batez antzemanaz aktibazioa beste espazio eta sektoreekin partekatu ahal izateko.

Horregatik guztiagatik, aktibazio-prozesuan zehar, komeni da **beste esperientzia batzuen berri izatea** eta **formazio-saioak tartekatzea**, ibilbidean zehar ikasi egiten baita. Gainera, egoera aldatzeko nahi horretan, oinarri edota balio batzuk finkatzea ondo etorri ohi da. Adibidez, ikerketa honetan aztergai izan diren esperientziak honako balio hauen arabera eraiki dira: irribarrea, parte hartzea, sormena, irekitasuna, kultur aniztasuna, ahalduntzea, alderdikierarik eza, adin aniztasuna, aniztasun politikoa, iraunkortasuna, elkartasuna, euskalduntasuna, auzolana, herrigintza, auto-antolaketa, feminismoa, antimilitarismoa, memoria historikoa...

Nolanahi ere, taldea aktibatzearen eta prozesuari ekitearen oinarrian, aurrekari batzuk edo testuinguru jakin bat egon ohi dira. Aurrekarien araberako intuizio edo bisio horrek eragin ohi du taldea elkartzea eta zerbait antolatua egiten hastea, batzuetan ibilbide oso zehatza definitu gabe, ideia eta inpultso berriak onartzeko jarrerarekin. Horregatik, edozein ekimen martxan jarri aurretik, aintzat hartzekoak dira tokian tokiko **aurrekariak eta giro soziala**.

Funtsean, ez da komeni "aktibismo" hutsean erortzea; garrantzitsua da hori gogoan izatea. Aitzitik, horren aurrean, diagnostiko soziolinguistikoak aintzat hartu beharko lirerateke, beste herri-mugimenduen proposamenak eztabaidatu beharko lirerateke eta formatzeko eta ezagutzak trukatzeko egiturak sortu beharko lirerateke; jakin minari heldu behar baitzaio. Horretarako guztirako, aktibazio-prozesuan zehar, kanpo-ikuspegiaren edo kanpo-laguntzaren beharra mahai gainean jarri beharko litzateke.

3. Administrazio publikoak eta gizarte-mugimenduak elkarlanean

Herritarren aktibaziorako, **eragile sozialen arteko elkarlana eta eragile horien eta instituzionalen artekoa** ez da ezinbestekoa, baina bai lagungarria; **onuragarria da** ekimenaren babes sinbolikoa zabaltzeari begira, baita baliabide gehiago mobilizatzeari begira ere. Erakunde publikoak bultzatzaile izan dira ikerketan aztertu diren herritarren aktibazio-esperientzietan, eredu edo harreman mota ezberdinekin eta batzuetan itzalean egonda ere bai. Hau da, administrazioaren babesa egon da, egiten uzten duelako edota babes politikoa eta laguntza ekonomikoa eskaintzen duelako.

Esperientziek ibilbide bat egiteko eta iraunkortasun bidean jartzeko, beharrezkoa dute finantzabidea. Hainbatek auto-finantzaziorako jarduerak dituzte, baina, horiekin batera, erakunde publikoekin hitzarmenak dituzte. Finantzabidea lortu eta liberatuak hartzen direnean egitasmoek beste dimentsio bat hartzen dute. Baina, aldi berean, erakunde publikoen finantziazioaren pentzuan ibiltzeak mendekotasuna eragin dezake. Bi ahoko ezpata sortzen du: erakunde publikoen finantziazioa beharrezkoa da, baina menpekotasunean erori gabe. Ehun asoziatiboa gizartearentzako beharrezkoa da, eta gizarte-eredu desiragarriarekin du lotura hertsia. Nola sustatu ehun asoziatibo aktibo eta bizia erakunde publikoen menpeko bihurtu gabe?

Eremu bakoitzaren autonomia errespetatuz (ez da nahitaezkoa den-dena elkarrekin egitea), eta elkarrenganako kritikak eta aldarrikapenak sortzen duen tentsioa eta gatazka demokratikoki onartuz, administrazioak eragile sozialen ekimenari trabarik ez jartzea eta babesa eskaintzea funtsezkoa izan liteke herri-aktibazioari begira. Elkarrekin jarduteko aukerak bilatzea ere komeni da hizkuntzaren inguruko aktibazio-prozesuetan. Elkarlan hori batzuetan goitik beherakoa izango da (erakunde publikoak bultzatzaile direnean), eta besteetan, berriz, behetik gora hasitakoa.

Era berean, aipatutako **gatazka eta tentsio horiek kudeatu** beharra dago. Gatazka ideologikoez gain, protagonismoek eta burokrazia kontuek ere sortzen dituzte desadostasunak, eta ez dira soilik gizarte mugimenduaren eta administrazio publikoaren artekoak izaten, bestelako eragileen eta pertsonen artean ere sor daitezke gatazkak eta tentsioak. Horregatik, eragile eta pertsona horien guztien artean sortzen diren desadostasunak akordio negoziatuekin bideratu behar dira. Izan ere, elkarrekin eraikitzekeo jarrera sustatu behar da, eta parte-hartzaile bakoitza eroso sentiaraziko duen oreka mantendu beharko litzateke. Horregatik, erakunde publikoen, sozialen eta herritarren funtzioak adostasunez banatu eta erabakiguneak zehaztu behar dira.

Ondorioz, elkarlanean aritzeko, **konfiantzazko solaskidetza eta harremana** eraiki beharko litzateke. Komeni da, beraz, prozesuan parte hartuko duten norbanakoen nahiz eragileen arteko **botere-harremanak aztertzea eta orekatzea**; hitza, erabakimena eta protagonismoa partekatzea, alegia.

Euskararen aldeko hizkuntza-aktibazioaren inguruan desadostasunak sortu daitezkeela onartuz ere, herri askotan beharrezkoa eta egingarria da oinarritzko orube komuna eta etorkizuneko agertoki desiragarria zein den adostasunez formulatzea. Etorkizunaren eraikuntza horretan, ekimen eta egitasmo batzuk partekatzeko modukoak izan daitezke: alderdien arteko lehia politiko-elektoraletik

blindatu daitezkeen egitasmoak, aurkaria ahultzeko edo etekin elektorala lortzeko erabiltzen ez diren hizkuntza-egitasmoak eta guztion babes politiko-instituzional osoa dutenak. Hala, aktibazio-prozesuaren bidez sor litezkeen ekimenak ezaugarri horiek betetzen dituela ziurtatzea komeni da.

Herritarren arteko artikulazio komunitarioa protagonista izatea funtsezko ezaugarria da aktibazio- eta eraldaketa-prozesuetan. Auzolanerako eta parte hartzeko kultura ahulduta badago, tokian tokiko herri-identitatearekin eta memoria historikoarekin loturiko lanketa izango da atariko lana, aktibaziorako ezinbestekoak diren baldintza sozialak gerta daitezzen.

Gainera, elementu garrantzitsua da auzolanaren eta herri-ekimenaren aitortza eta zilegitasuna baieztatzea. Izan ere, herritarren parte-hartzeak instituzioen politikak auzitan ipintzeko izan dezakeen funtzio demokratikoa ere aitortu beharra dago eraldaketa sozialaz ari garenean. Are gehiago, disidentzia, aldarrikapena, desobedientzia eta, instituzioen zain egon barik, ekitea eta aurreratzea funtsezkoak izan dira euskararentzako alternatiben eraikuntzan historikoki (hezkuntzaren arloan, komunikabideetan, kultur jardueretan...).

Amaitzeko, azpimarratzekoa da etorkizunera begira oso kontuan izatekoak direla legeek sor ditzaketen eta dagoeneko sortzen dituzten ondorioak auzolana eta herrigintza bultzatu nahi direnean. Esate baterako, boluntarioen lana aurrera eramateko arazo legalak daude (aseguruen trabak tarteko) edo Europatik datozen diru-laguntzak banatzeko irizpideek kalte egin diezaietke ehun asoziatiboari (hitzarmenak egiteko aukerak mugatu eta lehiaketan betekizuna ezartzen baitu). Alderdi horiek oztopo izan litezke hizkuntza-aktibazioan. Hori dela eta, legeak aktibazioa ito ez dezan, beharrezkoa dirudi hausnarketa egin eta konponbiderako formulak aztertzea.

4.Modu horizontalean antolatu

Prozesuak iraun dezan, garrantzitsua da antolaketa-maila zaintzea. **Egitura irekiak eta horizontalak sortu** beharko lirakeke, **norbanakoen eta eragileen parte-hartzea sustatzeko**. Hau da, erabakiguneak ireki eta prozesuan ari diren edo prozesura gehitzen diren kide guztiek parte hartzeko aukera zabaldu behar da, aniztasunean eta osagarritasunean oinarrituz.

Aniztasuna zaintzea funtsezkoa da, hau da, **aniztasuna eta ezberdintasunak modu irekian kudeatzeko ahalegin kontzientea** egin behar da. Prozesuan aktibatuko direnen artean ere bilatzen diren aniztasunak eta ezberdintasunak (adina, generoa, jatorria, ideologia, klase soziala, ezagutza-maila...) erronka izango direla jakitun, hori pertsonalki eta kolektiboki lantzeko prestasuna behar da.

Izan ere, botere-desorekak ez datoz soilik pertsonaren izaera partikularretik, kokapen sozial eta profesionalak ere eragina baitauka. Sarritan, nolabaiteko lidergoa hartzen dutenak talde hegemonikoetakoak dira (helduak, euskaltzale rola aspalditik dutenak, gizonak, euskalgintzako eremu sozialean edo instituzionalean profesionalki ari direnak...). Gainera, arlo publikoan protagonismoa hartzeko joera izan ohi dute, eta batzuetan soslai horretan ez daudenak goitik behera begiratzeko edo gutxiesteko joera ere bai. Horrek zaildu egiten du guztiei berdin entzutea, tokia egitea eta protagonismoa zein ardurak banatzea.

Zentzu horretan, talde kohesioa eta prozesuarekiko atxikimendua lantzeari begira, beharrezkoa litzateke aldiro-aldiro ebaluazioak egitea, prozesuarekiko zelan sentitzen garen partekatzea (indarra, gogoia, emozioa...), hobetzekoak identifikatzea, kritika eraikitzaileak egitea eta talkak edo gatazkak kudeatzeko tarreak hartzea.

Aniztasun-ezaugarri horiez gain, **euskalgintzatik harago**ko oinarri zabalago batekin (eragileekin nahiz herritarrekin) ere **zubiak eraiki** beharko lirateke, eta ekarpenak, erabakiak, kezkak... partekatzeko integratuko ditugu, hartzaile hutsak izan ez daitezten. Beste askatasun edota eskubide aldarrikapenekin gure aktibazio-prozesuaren desioak lotzea eta beste mugimendu eta ekimen horiekin zubi diskurtsiboak eta elkarlanekoak eraikitzea komenigarria da. Horrela, norberaren zirkulutik harago ireki eta begirada urrunago zabalduko dugu ("betikoengandik" harago); ez gara euskalgintzara soilik mugatuko, eta zeharkako ikuspegia landuko dugu.

Hierarkiarik gabeko funtzionamendu horizontala eraikitzeari begira, funtsezkoa bilakatzen da bileren metodologia alde aurretik prestatua eta ondo dinamizatu egotea, guztiok ekarpenak egiteko aukera berdina izan dezagun eta, horrela, guztiok ekimena geure egiteko joera nagusitu dadin. Hori lor daiteke zereginak, funtzioak eta ardurak banatuz ere, ardura partekatua eraikitzen joateko eta adostutako konpromisoak betetzen direla errazteko.

Era berean, **konpromiso-maila guztiak** kontuan hartu behar dira prozesuan, eta beraz, praktikan parte-hartze maila desberdinak egoteko bideak aurreikusi beharko lirateke. Izan ere, identitateak likidotzen ari dira, eta oro har, taldeak lehenago baino heterogeneoagoak eta askotarikoagoak sortzen dira, baita hizkuntzarekiko konpromisoari dagokionez ere. Malgutasunak konpromisoa epeltzea eta iraunkortasuna laburtzea ekar dezake, baina baditu alde positibo asko ere: dikotomiak desagertzea, mugak zabaltzea, lehenago iritsi ezin ziren gizarte-sektoreetara iristea... Azken finean, norberaren helburuei muzin egin gabe, besteei ateak irekitzeko aukera handitzen da. Beraz, bakoitzak eman dezakeenaz edo eman nahi duenaz galdetzea beharrezkoa da, boluntarioekin egingo baita lan.

Baldintza horiei erantzuteko, egitura ireki horren baitan konpromiso eta dedikazio maila ezberdinak egon daitezke, parte-hartze zirkulu ezberdinak. Gainera, diferentzia horiek ez lirateke negatiboki ikusi behar (presiorik eta kulpabilizaziorik ez sortzeko), ekarpen txikien garrantziaz jabetu eta horiek ere eskertu, ospatu eta indartzera animatzeko. Zereginen eta arduren ikuspegitik, garrantzizkoa da denbora edo epe jakin baterako bakoitza zein parte-hartze espaziotan eta arduratan kokatzen den agertzea eta gainerakoen aurrean konpromiso hori hartzea, betiere libreki erabakita, baina kontuan hartuta norberak, taldeak eta prozesuak dituen beharrak. Horien guztien arteko oreka da helburu. Konpromiso mailak ez dio inori ahotsik edo erabaki ahalmenik kentzen, erabakiguneak irekiak baitira. Beraz, erakundeen bizitza-zikloak eta norbanakoen egoerak kontuan hartu eta parte-hartzaileen dedikazio posibleak hasieran argi utzi beharko lirateke; pertsona beharrak ondo planifikatu eta aurreikusi behar dira.

Izaera parte-hartzaileko antolaketa ireki eta horizontal horretan, adostutako helburu eta gida-lerroen baitan, hainbat erabakigune egon daitezke, jende gehiagok eduki dezan prozesuan eragiteko aukera eta boterea. Horrek ekimenarekiko

identifikazio eta konpromiso emozional handiagoa dakar. Garrantzitsua da guztiei modu berdinean entzutea. Horrekin lotuta, ezinbestekoa da talde-kohesioa eta lan-giro adeitsua eraikitzeko, besteak beste, elkarren aitortza azpimarratzea, inork patrimonializatuko ez duen protagonismo kolektiboa eraikitzea, lidergo partekatua sortzea eta denek izatea ahotsa eta erabakimena modu orekatuan. Izan ere, parte-hartzea erabakitzailea izan behar da, ez dekoratiboa. Elkarri ezinbesteko direla sentiaraziz parte-hartzaile guztiek egingo dute bere prozesua, eta modu horretan bideratu ahal izango da elkarlana.

Prozesuan zehar joaten eta integratzen diren kideak ere zaindu egin behar dira (berriei egindakoa azaldu...). Izan ere, garrantzitsua da ekintzaileek beren burua legitimatua sentitzea, hau da, egiten ari direnaren balioa aitortu behar zaie.

5. Talde eragilea eratu

Beharrezkoa da ekimenaren **trakzio-lana** egingo duen talde eragile kohezionatua osatzea. Bere egitekoa izango da ardurak hartzea, egitasmoak proposatzea, harremanak sortzea, sarea handitzea... Sare guztiaren barrura zein kanpora begira egin beharko du lan, aktibazio-prozesuaren iparra galdu gabe, konbentzimendu osoz eta indarrez.

Idealena litzateke talde hori zabala, heterogeneoa eta berria izatea (orain arte elkarrekin jardun ez duena). Dinamika berri bat abiatzeko gogoia, freskotasuna eta jarrera irekia duten soslai ezberdinetako pertsonak dira partaide talde eragilean. Lehenagotik eskarmentua dutenak ("betikoak") eta ez dutenak ("berriak") nahasten dira, betiko dinamiketatik ateratzeko, baina eskarmentutik ikasteko jarrerarekin.

Taldean egin beharreko barne-prozesua zaintzeko jarrera duten pertsonak eta horri begira formazioan parte hartzeko eta eskuzabaltasunez jokatzeko prestasuna dutenak nahastea komeni da, nagusi izan dadin desadostasunak, hanka-sartzeak eta talkak apaltasunez eta zintzotasunez onartzeko eta soluzioa adostasunez bilatzeko jarrera. Hala nola, beste sentsibilitate, aldarrikapen eta errealitate batzuetara hurbiltzeko irekitasuna dutenak ere komeni dira, horrek ekar dezakeen kontraesan eta kuestionamenduak onartuz (adibidez, euskal gizartean baztertuak daudenen edo pobrezian bizi direnek, akonpainamendurik gabeko adin txikiko etorkinek kasu, nekezago dute euskararen aktibazioaren bueltan aritzea bestelako premiak eta beharizanak direla eta).

Ondorioz, **talde horren osaketa berriaz landu** behar da, izan ere, ikerketan zehar pertsonen izaeraren garrantzia behatu da; norbanakoen izaera garrantzitsua da, zalantzarik gabe, erabat baldintza baitezakete talde baten funtzionamendua, eta, ondorioz, baita proiektua bera ere. Izaera pertsonalak eragina du, bestalde, ez bakarrik Talde Motorraren funtzionamenduan, baita herritarrengana iristeko orduan ere. Horregatik, taldekideek ezaugarri jakin batzuk eduki edo transmititzeko modua izan beharko lukete: sormena, indarra, ausardia, umorea, konbentzimendua, aurre hartzeko gaitasuna, ilusioa eta entusiasmoa, lan efizientea, harreman berriak eraikitzeko prestasuna, kalitate humano eta profesional handia, enpatia...

Dohain horiek denak pertsona berak izatea ia ezinezkoa da. Horregatik, hori lortzeko, taldeko pertsonen artean osagarritasuna bilatu beharko da, eta gutxi-asko taldeko partaide guztiek ezaugarri horiek dituztela edo, behintzat, besteei hori transmititzen dietela bermatu behar da. Beraz, **profil desberdineko kideak**

beharko ditu taldeak; taldea zenbat eta askotarikoagoa, orduan eta irismen handiagoa. Dena den, taldekideen kopuruari ere arreta jarri beharko litzaioke. Izan ere, talde handiek eraginkortasuna galdu egin dezakete eta 3-8 pertsonarekin aski litzateke, kasuan kasu.

Kide horiek talde bilakatzeko pausoak eman behar dituzte kontzienteki. Kohesiorako eta funtzionamendu egokirako beharrezko neurriak hartu beharko lituzkete: harreman eta giro ona zaindu, tarte informalak ere partekatu, elkar zaindu, bilerak egiteko moduari arreta jarri, erabakiak hartzeko modua zaindu, iritzi kontrajarriak ageriko egin eta landu, ardurak eta lanak banatzerakoan txandakatze-sistemak erabili, eta abar.

6. Prozesua nola egiten den zaindu

Beharrak edo egitekoak ugariak direnean, denari heltzeko tentazioari iskin egin behar zaio, eta aktibazio-prozesuari **helburu argiak eta ausartak** ezarri behar zaizkio, norabide jakinean lan egiteko. Helburuak definituta izateak asko lagun dezake sarearen funtzionamenduan.

Norabide horretan lan egiteko, garrantzitsua izango da **metodologia zehatza jarraitzea**, ongi **planifikatutako ekimenak sustatzea**, alegia, ekintzak martxan jarrita jendea erakartzea errazagoa gertatzen delako. Planteatutako **ekimen horiek sinpleak** izateak jarraikortasuna ahalbidetu dezake, baita herritarrek parte har dezaten erraztea eta proiektu bateratu baten parte sentiaraztea ere. Are gehiago, ekintza horiek eguneroko jardunarekin, norberaren interesekin eta zaletasunekin zerikusia baldin badute, partaidearentzat zentzuzkoa bihurtzen da parte-hartzea.

Hala, helburuak, erronkak, funtzio-banaketak, epeak, eragiteko lurralde-eremua, tokian tokiko berezitasunak eta abar aktibazio-prozesuko partaide guztien artean adostea komeni da, eta planifikazio-prozesua bera ongi zaindu behar da, ondare positiboa lagatzeko (elkar zainduz, ez errez...). Aurreko gakoan aipatu moduan, antolaketa-mailako gakoak zainduta, egitura iraunkorrak sortzeko aukera handitu egiten da. Egitura, figura eta espazio guztien arteko komunikazioa eta lan-dinamika egoki kudeatzen badira, denboran irauteko gaitasuna izango dute.

Plan bat finkatzea beharrezkoa bada ere, herri-ekimenak freskotasuna erakutsi behar du, eta ez du herri-izaera galdu behar; ez du izan behar erabateko profesionaltasuna behar duen laborategiko esku-hartze artifiziala. Horregatik, adostutako metodologian eta erritmoetan, **malgutasunez jokatu behar da**. Izan ere, ekimena tokian tokiko egituretara, ohituretara eta gizarte-kulturara egokitzeko gaitasunari erantzun behar zaio aldiro. Zentzu horretan, berbideratzeko eta bide berriak proposatzeko sormena eta berritzeko prestasuna eduki behar dira.

Beraz, sorkuntza-lan hori bideratzeko, **prozesu malgua** sustatu behar da (denborak malgutasunez kudeatzea), eta **zailtasunak eta apalaldiak gainditzeko prestatu** behar da. Izan ere, talde motorraren eta inguruan sustatu nahi dugun gizarte-sarearen funtzionamenduak ez du zertan iraunkorra eta etenik gabekoa izan. Batzuetan aktiboago izan daiteke eta beste batzuetan bareago, egonean. Kontua da aktibatzen denean ikasteko aukera aberatsa eta emankorra sortzea, hondar edo zapora ona uztea. Hori lortuz gero, interesgarria eta errazagoa

izan liteke noizbait berriz aktibatzea sareko partaideren batek hala proposatuta, bestelako aldarrikapen edo ekimenen inguruan bada ere.

Beheraldiei edo krisi garaiei aurre egiteko eta prozesuari eusteko, honako alderdi hauek lagungarri izan daitezke: pertsona batzuen pertseberantzia, baliabiderik ez duten pertsonentzako parte hartzeko erraztasunak ematea (etorri berriei garraiorako dietak ematea, esaterako), gazteak erakarri ahal izateko kudeaketa burokratikoko eginbeharrei jare egin eta espazioak eskaintzea, eta abar.

Antolaketan lortutakoari eusteko ere lanketa berezia egin beharko litzateke; aktibatutakoari eusteko, bereziki landu beharko litzateke prozesuaren helburuaren eta etorkizunaren gaia. Aztertu egin beharko litzateke zein pertsona aktibatu diren, zein diren puntualki aktibatu direnak eta zein modu iraunkorrean arituko direnak, nola mantendu daitekeen egituraren bat aktibo, maila apalean bada ere, tokian tokiko agenda landuta... Azken finean, egitura ideala litzateke olatuka lan egingo duena eta, lehen esan bezala, parte-hartze zirkulu (edo parte-hartze maila) desberdinak izango dituen aktibazio-prozesuaren faseen intentsitatearen arabera. Alegia, kideen parte-hartzeak, dedikazioak eta ardurak ere, adostutakoak eta ekimenaren intentsitatearen eta kideen nahi eta ahalmenen arabera izango lirateke.

Horiek horrela, komunikazioa tresna garrantzitsua izango da, barnera zein kanpora begira lantzekoa, diskurtsoak zabaltzeko, parte-hartzea eragiteko edota egoerak bistaratzeko balioko baitu; **barne- zein kanpo-komunikazioa zaindu** behar dira. Barne-komunikazio kanalak mimo handiz elikatu behar dira, eta noizean behin umorea, ironia eta atentzioa deituko duten estiloak erabili behar dira, hartzaileen arabera. Egiten dena gizarteratu eta gizartetik erantzuna jasotzeko bideak elikatu behar dira. Garrantzitsua da **bereziki lantzea emozioen eta harremanen arloa**: entzuketa aktiboa eta integratzailea, hurbiltasun afektiboa, malgutasuna, umorea eta alaitasuna, bestearen zailtasunekin enpatiaz jokatzeko, besteak diren moduan onartzea.

Gizarteari helarazitako mezuetan asmatzeko, komunikazio-plan bat osatzea lagungarri izan daiteke, eta komeni da mezu eta diskurtso horiek ahalduntzea eta susperraldia piztea eta arlo emozionala lantzea, betiere ikuspegi eraikitzailetik. Horretarako, iruditeria kolektiboa sinboloekin lantzeak komunitatearen baitan lotura eta memoria sortzen laguntzen du, eta sinbologiak pertsonengan sortzen duen aztarna baliagarri izan liteke memoriarako, atxikimendurako edo emozioetarako.

Komunikazio-ekintza orokorrez gain, herritarrengana eta eragileengana iristeko biderik egokiena aurrez aurreko harremanak bideratzea da. Aurrez aurreko harremanek aukera ematen dute ekimena sakonago azaltzeko eta haren inguruko kezak eta zalantzak argitzeko, baita aurrera begira harremanak mantentzeko ere. Hala, aurrez aurreko harremana egiteko pertsona egokienak zein diren zehaztea ere giltzarri izan daiteke. Ikerketan zehar, esaterako, bereziki aipatu da gazteen parte-hartzea ezinbestekoa dela gazteak erakartzeko.

Gainera, besteak noiz etorriko zain egon barik, beste espazioetara eta kolektiboetara hurbiltzea interesgarria izan liteke. Harremanei dagokienez, ez lirateke inertziaz egin edo/eta inprobisatu behar. Bilerak eta lan-saioak ondo prestatu eta metodologia zein dinamizazio zaindua behar duten elkarguneak dira

(aldez aurretik prestatu, ondo dinamizatu, puntualitatea errespetatu, batzarren denbora-tartea zaindu...). Elkargune horiek aukera eman behar dute gauzak irekitasunez planteatzeko eta proposatutakoa denen artean aztertzeko, mintzatzeko txandak osoak eta orekatuak izateko, guzti-guztiak entzuteko desadostasunak denborarekin eta modu sortzailean kudeatzeko eta erabakietan denen ahotsak egoteko. Alderdi horiek zaindu beharra dago eragile desberdinek elkarrekin lan egiteko konfiantza eta konplizitatea lortu ahal izateko.

Esku-hartze sozialaren lanak bilera eta lau hormen arteko lan dezente eskatzen du, baina ez da bulego-lana bakarrik. Izan ere, maila handi batean, kale-lana ere bada; hain zuzen ere, batekin eta bestearekin egotea, entzuten jakitea, proposamen erakargarri eta ilusio-sortzaileak egiten asmatzea eta gizarteko sektore desberdinen topaleku naturaletan egoten jakitea. Horregatik, funtsezkoa da arestian aipatutako jatortasuna eta irekitasuna transmititzea. Gizartean eragiteak, beste hainbat faktoreren artean, pertsona eta talde eragileen lidergo erakargarria eta aglutinatzailea behar duen zeregina dirudi.

Ekimenek kaleko presentzia eta espazio publikoak konkistatu beharko lituzkete. Gaiak eta ekintzak kalera atera behar dira fisikoki, hau da, ekintzak kalean gorpuzten dira eta gaiak sozializatu egiten dira, espazioak konkistatzean ikusgarri egiten dira.

Ondorioz, espazioak identifikatu eta erabili egin behar dira, kontzienteki. Bilguneak erdigunean eta kalean sortzea komeni da, espazio komunitario publikoak sortzeko. Aldaketa eta mugimendua izango dituzte espazio horiek, ekintzek bizirik egoteko presentzia eduki behar baitute. Harremanak, ideiak eta ezagutza berriak sortzen laguntzen dute espazio horiek, jakin-mina pizten, alegia. Aktibaziorako kalean egiten diren ekintzek beste oihartzun bat lortzen dute. Beraz, gun e itxietatik atera behar dira ekintzak plazara eramateko. Espazio fisikoez nahiz birtualez ari gara.

Horiek eginda ere, denborarekin nobedade kutsua galdu eta errutina bihurtzeko arriskua egon daiteke. Hala, ilusioa ez iraungitzea bilatu beharko da, indarra galdu ez dadin; ilusioa elikatzen eta lantzen jarraitzea funtsezkoa da. Horretarako, ekimenaren bidez sortutako giroaz elkarrekin gozatu eta lortutako fruituak elkarrekin ospatu beharko lituzkete antolatzaileek.

7 AZKEN HAUSNARKETAK

Lau urteko ikerketa eta esku-hartzeko prozesu honek herritarrak euskararen jiran aktibatzeke hainbat ondorio utzi dituelakoan gaude, baita tokian tokiko lanerako eta gogoetarako ildoak agerian jarri ere. Gainera, euskalgintzan hain ohikoak ez diren hainbat kontu ere aipatzen direla iruditzen zaigu, eta beraz, tokian tokiko euskalgintza-jardunera ekarpen berritzaileak egin daitezke hemen aipatutako ideiekin. Ea ikerketaren baitan sortutako tresnak eta edukiak baliagarriak diren horretarako; hala espero dugu.

Hala eta guztiz ere, gogorarazi nahi dugu hemen proposatutako prozesua ez dela aktibaziorako huts egiten ez duen errezeta ziurra; herritarren portaera eta mobilizazioa, zorionez, ez baita planifikatu edo telegidatu daitekeen prozesua. Saiatu gara, beste hainbat esperientzia eta prozesuren argitan, herritarren aktibazioa erraztu ditzaketen urratsak eta eginbeharrak identifikatzen eta urrats horiek elkarrekin lotzen, ideala den prozesua irudikatzen, alegia. Horrelako prozesu bat abiatzeko, nahiko borondate eta aldeko baldintzak gertatzen direnean, bidea modu egokian egiten eta zaintzen asma dezagun balio dezake. Jakitun gara, ordea, aldeko baldintza ideal guztiak nekez suertatzen zaizkigula tokian tokiko egoera sozial errealean; baina jakitun gara modu egokian jorratuz gero aldeko baldintza batzuk sortzeko dugun gaitasunaz/aukeraz ere.

Aktibaziorako identifikatutako gakoekin ere gauza bera gertatzen da; irudikapen oso bat eskaini dezakete, besterik ez. Gerta liteke kasuren batean ezin aintzat hartzea hemen proposatzen diren alderdi edo gako guztiak; kasu horietan ere, aktibazio-prozesua sustatzeko ahalegina egin liteke, horiekin batera planifikatu ezin diren beste faktore batzuk eragin baitezakete desiraturiko emaitzak eskuratzea.

Beraz, orientabide bezala erabili dezakegun prozesuaren eta gakoien irudikapen oso bat edukitzeagatik ezin ditugu jarraitu beharreko gida zurruntzat hartu hemen aipatutako guztiak. Ezin dugu galdu horrelako prozesuek behar duten malgutasuna eta freskotasuna, zurruntasuna ez baita bidelagun egokia prozesu kolektiboetan. Tokian tokiko aktibazio-prozesua bertan suertatzen diren baldintza, aukera eta baliabideen arabera egokitu beharko dugu. Hala, ikerketa honetan mesedegarri izan daitezkeen hainbat elementu jorratu ditugu; ekimen bakoitzaren esku geratzen da bere testuingurura eta baldintzetara moldatzea eta, horrela, hizkuntza-aktibaziorako elementu lagungarri gehiago identifikatzea edo bide propioa egitea, idiosinkrasia bakoitzak izan ditzakeen berezitasunak behar bezala integratu ahal izateko.

Horregatik guztiagatik, interesgarritzat jotzen dugu ikertzen jarraitzea, euskaltzaleen komunitatea hobeto komunikatzea ahalbidetuko duten antolaketa-molde berriei buruz gogoetatzeko.

8 EMAITZEN HEDAPENA

Ikerketa-prozesu osoa amaitu ostean (2016-2019), honako euskarri dibulгатibo hauek eratu dira:

- Esku orria⁶ → emaitzen oinarrizko azalpena jasotzen du, eta herrietako teknikariei nahiz euskaltzaleei banatuko zaie
- Laburpen-txostena → bertsio digitalean dago eskuragai

Material horiek eta ikerketari buruzko informazio gehiago weborri honetan topatuko dute interesdunek: www.soziolinguistika.eus/aktibazioa

Gainera, 2020. urtean zehar, ikerketaren emaitzak hedatzeko hainbat aurkezpen egitea aurreikusi da:

- Aurkezpenak herrietako euskara teknikariei, Gipuzkoan eta beste lurraldeetan
- Saioak Euskaraldiko lurralde foroetan eta Topaguneko bazkideekin

Era berean, ikerketa-prozesuan zehar ere, hainbat zabalpen-bide baliatu dira fasez fase eskuratutako emaitzak partekatzeko eta hedatzeko.

- Aurkezpenak:
 - **“Tokian tokiko aktibazioa: gakoak”** Imanol Larrea Mendizabal (Soziolinguistika Klusterra), Donostia 2017-10-28.
 - **“Language activation in society for the promotion of Basque language at a local level”** Imanol Larrea Mendizabal (Soziolinguistika Klusterra), Leeuwarden, Ljouwert, 2018-04-24
 - **“Bi gehi bi lau ez direnean: herrigintzaren magia. Hamaika gako herritarren aktibazioan”** Zesar Martinez Garcia (EHU), Amaia Balda Etxarte (Emun) eta Imanol Larrea Mendizabal (Soziolinguistika Klusterra), Lasarte-Oria, 2018-05-17.
 - **“Activación social para la promoción del euskera a nivel local”** Olatz Altuna Zumeta (Soziolinguistika Klusterra), Vigo, 2018-06-14.
 - **“Herritarren tokian tokiko aktibazioa”** Zesar Martinez Garcia (EHU), Amaia Balda Etxarte (Emun) eta Imanol Larrea Mendizabal (Soziolinguistika Klusterra), Bilbo, 2018-11-06.

⁶ Esku orria diseinatzean, kontuan hartu dira aktibazio-prozesuak dinamizatzeko dagoeneko kalean dauden hainbat euskarri: Joxemi Zumalabe fundazioak (Hainbat kide, 2014) edo BAGERA Donostiako Euskaltzaleen Elkarteak (Trenor, 2017) argitaratutakoak, adibidez.

- **“Zer erakutsi digu Euskaraldiak hizkuntza-aktibazioaz?**
Zesar Martinez Garcia (EHU) eta Helene Armentia Artzak
(Elhuyar), Tolosa, 2019-10-09.
- Artikuluak:
 - Martinez, Z., Balda, A. eta Larrea, I. (2018): **“Tokian tokiko hizkuntza-aktibazioa: hainbat gako”**. BAT Soziolinguistika Aldizkaria, 107 (2). Andoain (Gipuzkoa)
 - Martinez, Z. (*argitaratzeaz*): **“Tokian tokiko hizkuntza-aktibazioa: prozesu proposamena”**. BAT Soziolinguistika Aldizkaria. Andoain (Gipuzkoa)
- Azkenik, ikerketaren emaitzak nazioarteko aldizkari zientifikoren batean, ingelesez, argitaratzea landuko dugu.

9 BIBLIOGRAFIA

- Agirre, J. (1996). *Hitza hitz: Txillardegirekin solasean*. Donostia: Elkar.
- Amonarriz, K. (2015). *Anton Abbadia Saria jaso zuenean egindako mintzaldia*. <https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/hizkuntzaber dintasuna/jarduerak/abbadia-saria/2015-kike-amonarriz>
- Amonarriz, K., & Arruti, I. (1993). Euskararen aldeko mugimendu sozialak gaur egun. *Hizkuntzen aldeko mugimendu sozialak*. Donostia: EHU. Udako XXII. Ikastaroak.
- Arruti, I., & Muniozguren, F. (1993). Euskararen normalizaziorako entitateen arteko elkarlana. *Jantzten aldizkaria* (9. alea).
- Euskaltzaleen Topagunea. (2015). Berrikusi eta berrikasi. Euskaltzaleok batzen gaituena garrantzitsuagoa delako. *Topaberri aldizkaria*, 66.zenbakia.
- Hainbat kide. (2014). *Dabilen harriari goroldiorik ez; militantziaz eta horizontaltasunaz hausnartzen*. Joxemi Zumalabe Fundazioa.
- LARRUN gehigarria. (2015). Euskalgintza, berritu ala hil. *Argia aldizkaria*, 197.alea.
- Martinez, Z., Casado, B., & Ibarra, P. (2012). Jendarte Mugimenduak eta prozesu askatzaileak. *Lan kuadernoak*, 53.zenbakia.
- Sánchez Carrión, J. M. (1987). *Un futuro para nuestro pasado: claves de la recuperación del euskara y teoría social de las lenguas*. Lizarra.
- Sarasua, J. (2013). *Hiztun polisa. Euskaltasunaren norabideaz apunteak* (2. argitaraldia). Iruñea: Pamiela.
- SORguneak ikertegia. (2008). *Kultur bizitzaren azterketa kualitatiboa Gipuzkoan*. <https://www.berria.eus/dokumentuak/dokumentua702.pdf>
- Soziolinguistika Klusterra. (2014). *Datu soziolinguistikoen bilduma. Gipuzkoa, 1986-2011*.
- Soziolinguistika Klusterra. (2017). *Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa: Euskal Herria, 2016*.
- Trenor, I. (2017). *Nola egin dute? Hizkuntza ohituretan eragiteko esperientzien bilduma. Ekitea da kontua*. Donostia: BAGERA Donostiako Euskaltzaleen Elkarte.
- Zapata, O. (2015). *Harrera Gida: Euskaltzaleen Topaguneak, zertarako eta nola*. Durango: Euskaltzaleen Topagunea.
- Zibechi, R. (2007). *Autonomías y emancipaciones: América Latina en movimiento*. Lima: Universidad Nacional Mayor de San Marcos.

10 ERANSKINAK

10.1 DISEINU-TXOSTENA



Tokian tokiko hizkuntza-aktibazioa:
Ikerketa proiektuaren diseinu txostena

Andoain, 2015eko abenduaren 11n

10.2 GAKOEN TXOSTENA



TOKIAN TOKIKO HIZKUNTZA AKTIBAZIOA

KASUEN AZTERKETA

Andoain, 2017ko otsaila

1


10.3 ARRASATEKO ESKU-HARTZEAREN TXOSTENA



Arrasateko hizkuntz aktibazioa amets, berriz egin Geike!

0. AURKIBIDEA
1. Sarrera: tokiko aktibazioaren proiektua
2. Aktibazioaz: baina... zer gertatzen zaigu?
3. Arrasateko esku hartzearen testuingurua
4. Arrasateko esku hartzearen deskribapena
5. Prozesuan zehar landutako gakoien analisia:
 - a. Talde motorra eta egitura
 - b. Botere harremanak eta baliabideak (babes ekonomikoak)
 - c. Behar soziala
 - d. Egitura ireki eta horizontalak
 - e. Harremanak kanpora eta barrura begira
6. Prozesuak emandako gakoak/prozesuan zehar azaleratutako gakoak
 - Botere-harremanekin eta egiturarekin lotuta:
 - a. Lidergo partekatua, hainbat perfiletako pertsonak. Botere harremanekin
 - b. Eragile mota guztien arteko harremana landu, funtzioak, disponibilitatea, baliabideak... eragile bakoitzaren lekua, ardura...konpartitu eta adostu. Zintzotasuna, argi hitz egiteko espazioak eta aukerak zehaztuta
 - Talde motorrarekin lotuta:
 - c. Elkarlana eta enpatia
 - d. Konfiantza, kafegintza...
 - e. Talde motor kohesionatua
 - Bestelakoak:
 - f. Ahalduntze prozesua; egiten dena barneratzeko, sinesteko, konfiantza hartzeko, besteen lekuetan jartzeko... EMAITZA???
 - g. Berbideratzeko malgutasuna
 - h. Besteengandik ikasteko gogoia (jarrerak, faktore pertsonalak????)
 - i. Kanpo-ikuspegia, kanpo-laguntza...
 - j. Komunikazioa
 - k. ...
7. Ondorio nagusiak

10.4 TOLOSALDEKO ESKU-HARTZEAREN TXOSTENA



*Tolosaldeko Galtzaundi;
aktibaziorako gakoan laburbilduma*

10.5 AKEBAI (EIBAR) ESPERIENTZIAREN TXOSTENA



**TOKIAN TOKIKO HIZKUNTZA
AKTIBAZIOA**

EIBAR: AKEBAI ELKARTEA

Asmae Ourdi
2018ko ekaina

10.6 "EUSKARALDIKO AKTIBAZIO-GAKOAK" TXOSTENA

